


eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación



KAZETARITZA GRADUA
IKASTURTEA 2017-2018

SIONISMOAREN SORRERATIK,
ARABIIARRREN KANPORAKETARA

EGILEA: Castillo Manteca, Jose Manuel
ZUZENDARIA: Zabaltza Pérez-Nievas, Xabier

Data, 2018ko urtarrilaren 12a

Aurkibidea

1. SARRERA.....	3
I. Lanaren aurkezpena.....	3
II. Metodologia eta iturriak.....	5
III. Hipotesiak: Sionismoaren sorreratik, arabiarren kanporatzera.....	6
2. MARKO TEORIKOA.....	10
I. Sionismoa mugimendu nazionalista moderno gisa.....	10
II. Arabiarren kanporaketa pentsamendu sionistan.....	14
II.1. Theodor Herzl eta aita sortzaileak.....	14
II.2. David Ben-Gurion eta sionismo laborista.....	18
II.3. Zeev Jabotinsky eta sionismo errebisionista.....	22
II.4. Avraham Yitzhak Kook eta sionismo erlijiosoa.....	25
3. ONDORIOAK.....	26
BIBLIOGRAFIA.....	30

1. SARRERA

I. Lanaren aurkezpena

Jarraian aurkezten dudan gradu amaierako lan hau ikasturte oso baten ikerketa lan baten emaitza da. XX. mendean hasi, eta egun oraindik jarraitzen duen, Ekialde Hurbileko eta mundu mailako gatazka esanguratsuenetako baten oinarri historikoak aztertzea izan dut helburu lan honetan. Kazetaritzako ikasle naizenez, osatu dudan lehen ikerketa lan sakona da honakoa. Hala ere, ez da kasualitatea Israel eta Palestinaren arteko gatazka hautatu izana lehen ikerketa sakon honentzat, izan ere nazioarteko politikan eta historian dudan interesa aspalditik dator. Ildo honi jarraiki, arabiar eta israeldarren arteko gatazka honek osagai ugari biltzen ditu; gatazka geopolitiko, eztabaida historiko eta erlijiosoa eta, nola ez, lur jakin batekiko bi herrik aldarrikatzen duten zilegitasuna. Beraz, erlijioa eta geopolitika nahasten diren gatazka honek egungo Ekialde Hurbileko beste gatazka batzuk ulertzen lagun diezagukeela uste dut, horregatik ekin diot ikerketa honi.

Kazetari izango naizen aldetik, israeldarren eta palestinarren gatazka albiste askoren iturri dela ere aipatzea interesgarria da. Hala ere, publiko orokorrak jasotzen dituen albisteak azalean baino ez dira geratzen. Beraz, gai hau jorratu nahi duen kazetari orok bi aldeen erreklamazioen jatorri historiko-ideologikoa ezagutu beharko lukeela uste dut. Ezin da ulertu Netanyahu, egun Israelgo lehen ministroak, Zisjordanian kolonia berriak eraikitzeke duen plana, sionismoaren historiaren eta honen garapen historiko eta ideologikoaren ezagutza minimo bat ez badugu.

Gatazka honetan bi alde nagusi daude, bat sionistek osatzen dute eta bestea arabiarrek edo palestinarrek. Gradu amaierako lan honen helburua, gatazka baten oinarri historikoak aztertzea da. Kontuan izanda lan honek duen luzera eta ikerketak eskatzen duen denbora, ezinezkoa litzateke niretzat bi aldeen azterketa osatzea. Beraz, lan hau sionismoan, hau da, Palestinako lurretan, Estatu judu bat eraikitzea bultzatu duen mugimendu ideologiko eta politikoan, zentratzea erabaki nuen. Zehazki, lan honetan sionismoak, bere korrante ideologiko guztietan, etorkizuneko Israelgo Estatu izango zenetik bertako biztanleria propioaren zati bat kanporatzeko edo lekualdatzeko izan dituen asmo historikoak aztertuko ditut. Noski, sionismoak arabiarrek kanporatzeko erabilitako diskurtsoa aztertzeke lehenik eta behin sionismoaren sorrera aztertu behar da. Beraz, lanaren hasierako puntuak sionismoaren jaiotza aztertzeri eta Israelgo Estatu, munduko juduen Estatu, Palestinako lurretan eraikitzeri eraman zuten arrazoiak aztertzeke erabiliko ditut. Kontuan izanik, egun zirela nazionalismo juduaren adar batzuk asmo territorialik ez zutenik, bundismoaren kasua Europa ekialdean adibidez. Adar honek juduen identitate nazionala aitortu zedin eskatzen zuen, baino ez zuen estatu edo lurralde zehatzik eskatzen. Beraz, lana sionismoan zentratuko dugu, nazionalismo juduak beste joera batzuk ere izan dituela ahaztu gabe.

Behin sionismoaren sorrera eta honen lur eskaerak nondik datozen aztertuta, honen liderrek Palestinako lurretan bizi ziren jatorrizko biztanleekiko hartu zuten jarrera aztertzea izango da lanaren helburua. Frogatzen saiatuko naizen tesi nagusia honakoa izango da: sionismoaren helburu nagusia *Eretz Yisrael* deituriko lurtean eta Bibliak zilegitasun osoz "herri juduari" ematen dion lurtean Estatu judu bat ezartzea da, non juduek populazioaren gehiengo bat osatuko duten. Horregatik, XIX. mende amaieratik 1948an Israelgo Estatu ezarri arte zentzu ideologiko ezberdineko sionistek, arabiarrek

Palestinatik kanporatzeko edota lekualdatzeko planak prestatu zituzten, hasi ezker laboristatik eta sionista errebisionistetaraino.

Beraz, ikerketa honetan ikuspegi sionistek arabiarren kanporatzearekiko izan dituzten jarrerak eta plan zehatzak aztertuko ditugu. Horretarako, sionismoaren barne korrante ideologiko bakoitzeko pertsonaia esanguratsuenetako bat hautatzea erabaki nuen. Noski, “sionismoaren aita” bezala definitu izan dena, Theodor Herzl izango da aurreneko aztertuko dudana lider sionista. Bigarrenik, David Ben-Gurion hautatu dut sionismo ezkertiar edo laboristaren ordezkari gisa. Beste muturrean, Zeev Jabotinsky aztertuko dut eskuineko edota sionismo errebisionistaren ordezkari gisa. Azkenik, sionismoa ez denez ardatzen soilik esker-eskuin termino politiko klasikoetan, honelako lan batean sionismo erlijiosoak duen pisua ere aztertu behar dela pentsatu nuen. Horretarako, Avraham Yitzhak Kook errabino judu ortodoxoaren figura aztertuko dut. Noski, lana ez da mugatuko lau pertsonaia hauen adierazpen eta ekintzetara. Lau pertsonaia hauek mugimendu politiko baten isla gisa hautatu ditut, baina hauetaz hitz egitean bakoitzaren espektro ideologikoaren barne zeuden beste pertsonaia eta jarraitzaile batzuk ere aztertuko ditut ikerketan zehar. Adibide bat aipatzearen, Ben-Gurionen figura ikutzerakoan ezker laboristako beste kide batzuek palestinarren kanporaketarekin zein jarrera izan zuten ere ikusiko dugu.

Sionismoaren autore eta lider garrantzitsuen ideiak ulertzeko, noski, hauen testu originaletara jo behar izan dut eta garrantzi berezia izango dute hauek lanean zehar sionismoaren bilakaera azaldu ahal izateko. Hala ere, aipatu behar dut, arabiarren kanporatzea bezalako gai “korapilatsu” batez hitz egiteko, lider sionista askok publikoan egindako adierazpenak asko zaintzen zituztela. Horregatik, talde sionista ezberdinen batzarretara edota lider sionista ezberdinen idatzi pribatuetara sarrera izan duten autoreen bibliografia topatu behar izan dut lana osatu ahal izateko. Garai eta giro politikoaren arabera, arabiarrek lekualdatzearen aldeko deklarazioak ugariagoak edo sekretuagoak baitziren lider sionisten aho zein idatzietan.

Sionismoa da, beraz, ikerketa honen ardatz nagusia. Hau XIX. mendean sortu zen gainontzeko mugimendu nazionalista moderno guztiak bezala. Baina mugimendu sionistak badu berezitasun nagusi bat gainontzeko nazionalismoekiko. Nazionalismo gehienak aurretik ezarritako lurralde eta muga batzuetan oinarritu ziren bertako biztanleen nazio sentimendua ezartzeko edota lurralde jakin bateko bizilagunen artean independentzia nahia sustatzeko. Nazionalismo juduak, ordea, ez zuen inolako nazio politiko moderno gisa aldarrika zezakeen lurrik, eta hutsetik sortu behar izan zuen errelato eta mito nazional handi bat, *Eretz Yisrael* edota Palestinako lurrak “juduen etxe nazional” gisa aldarrikatzeko. Naziotasun hau Biblian eta pasarte historiko batzuetan oinarritu zen. Baina berezitasun nagusia, kontakizun nazional hau zuzentzen zitzaien hartzailea munduan zehar barreiatua aurkitzea izan zen. Izan ere, XIX. mende erdialde eta bukaeran, oraindik ere, judu komunitate oso txikia bizi baitzen Ekialde Hurbilean. Mito nazional honetatik abiatuta, hasi ziren sionistak Palestinako biztanle ez juduak kanporatzeko planak osatzen eta munduko judu guztiei Israelera emigratu zezaten eskatzen. Aurrekari historiko hauek ulertu gabe, nekez uler daiteke egun gatazkak bizi duen “blokeo” egoera luzea.

Azkenik, lanean murgildu aurretik, eskerrak eman nahi dizkiot Gradu Amaierako Lan honetan zuzendari lanetan izan dudana Xabier Zabaltza irakasleari. Nazionalismoen inguruan eta zehazki sionismoaren inguruan duen jakintza erabat beharrezkoa izan dut lan hau norabide egokian bideratu ahal izateko. Bestalde, eskertzekoa da nire zalantzak argitzeko beti erakutsi duen prestutasuna, bere bulegoko ateak beti aurkitu izan baititut irekita. Gainera, bibliografia eskuratzeko orduan ere beti

eskaini dit bere laguntza. Azkenik nabarmendu, Kazetaritza Graduko bigarren mailan Zabaltzak berak ematen duen Gizarte Komunikazioaren Historia Orokorra irakasgaiaren ikasitakoa eta berak bultzatutako interesik gabe ezinezkoa litzatekela gaur hemen aurkezten dudana ikerketa lan hau egitera animatu izana. Horregatik, nire eskerrik beroena laguntza paregabe honengatik eta lan honen azken emaitza horren isla izan dadin espero dut.

II. Metodologia eta iturriak

Hasieran ezan bezala, lan hau ikerketa lan sakon baten ondorio da. Beraz, planifikazio zehatz bati erantzun dio honen osakerak. Lehenik eta behin, gaia lider sionistek egindako kanporaketa planak aztertzea izanik, denbora tarte zehatz bat aukeratu behar izan nuen lider hauen planak aztertzeko. Sionismoaren sorreratik, Israelgo Estatuaren sorreraino (1948) doazen urteak aukeratu izana ez da kasualitate hutsa. Izan ere, ondoren ere izan dira kanporatze planak, baina lan honen helburua da, ahots askok diotenaren kontra, frogatzea sionismoak betidanik izan duela Palestinatik bertako populazioaren zati handi bat kanporatzeko asmoa, hau da, ez dela 1967ko gerraren edota arabiarren erantzun bortitzaren erantzuna.

Behin lanaren gai nagusia eta denbora tarte zehazturik, lehenik eta behin egin beharreko lana nazionalismoa kontzeptu ideologiko-politiko bezala ulertzea izan zen. Sionismoa, judutar nazionalismoaren adar nagusienetakoa izanik, hau guztiz ulertzeko lehenik eta behin nazionalismoa bera zer den ulertu behar da. Nazionalismoaren inguruan zein ikuskera akademiko dauden ulertzen saiatu nintzen lehen zati honetan. Ikerketa honek ez du isla handiegirik jarraian datorren lanean, ez baita lan honen helburua nazionalismoen azterketa bat egikaritzea, baina sakontasunez sionismoa ulertzeko zinez lagungarria izan da hurbilketa hau egitea. Honetarako, autore modernistak (Hobsbawm, Gellner), primordialistak (Hastings, Armstrong) eta bi joera teoriko hauen artean erdibide bat proposatzen dutenak (Smith, Hroch) hartu dira kontuan.

Jarraian, lanaren lehen zatiak sionismoari hurbilpen labur bat proposatzen du, ikerketa gai izango den autoreen ideologiaren ildo nagusiak zehazte aldera. Horretarako, sionismoaren sorrera ildo nagusiak aztertzen saiatu naiz. Israeleko lurrarekiko duten lotura, Bibliak pentsamendu sionistan duen garrantzia edota nola saiatu ziren munduan zehar barreiatu aurkitzen zen herria nazio politiko gisa antolatzen. Horretarako, baliagarriak izan dira Nicholas De Langeren *El judaísmo* liburua, Israel Finkelstein eta Neil Silberman autoreen *La Biblia desenterrada* liburu famatua, Karen Armstrong-en *Historia de la Biblia*, Shlomo Sand irakaslearen bi obra nagusiak *La invención del pueblo judío* eta *La invención de la tierra de Israel*. Halaber, aita sionista nagusien, batez ere kasu honetan Theodor Herzl-en lehen eskuko idatziak ere baliagarriak izan dira sionismoaren sintesi bat osatzeko. Esan bezala, hau sarrera lan bat baino ez da, ondoren datorren gai nagusia kokatze aldera.

Azkenik, lanaren atal nagusia lau autore ezberdinetan banatuta dagoenez, bibliografia sailkatzea ere errazago suertatu zait. Pertsonalitate eta korrante sionista bakoitzak egindako kanporaketa planen azterketari laneko zati nagusiaren atal bat dagokio: Theodor Herzl eta sorrerako sionisten asmoak, Ben-Gurion eta sionismo ezkertiarren proposamenak, Jabotinsky eta sionismo errebisionistarenak eta azkenik Avraham Yitzhak Kook errabinoak islatzen duen sionismo erlijiosoarenak. Lan honetarako bada bibliografia komun bat, atal eta autore bakoitzarentzat erabili dena, eta

espezializatu bat. Denis Charbit historialari frantsesak autore sionista nagusien lehen eskuko obra garrantzitsuenak bildu zituen *Sionismes. Textes fondamentaux* liburuan. Hau, garrantzi bereziko izan da lehen eskutik autoreen idatziak ezagutzeko. Baina, arestian aipatu bezala, sionisten testu publikoetara jotzea ez da nahikoa beren benetako asmoak ezagutzeko, askotan bilera pribatuetan edota euren publikatu gabeko idatzi ezkutuetan baino ez baitzituzten benetako asmoak argitzen. Horregatik, artxibo hauekin lan egin ahal izan duten autoreen bibliografiak garrantzi berezia izan du: Nur Masalha irakasle palestinarraren *La expulsión de los palestinos: el concepto de "transferencia" en el pensamiento político sionista, 1882-1948* eta Chaim Simons errabinoaren *International Proposals to Transfer Arabs from Palestine, 1895 - 1947: A Historical Survey*. Hauez gain, ikuskera osatuago bat egite aldera, Ilan Pappé historialariaren ikerketa ezberdinek ere izan dute garrantzia lanean. Azkenik, Ben-Gurion, Israelgo Estatuko lehendabiziko lehen ministroa izanik, bere pentsamenduak azterketa berezia jaso du, *Ben-Gurion and the Palestinian Arabs: From Peace to War* Shabtai Teveth autorearen obra lagun izanda.

Iturri hauen guztien informazio osatua bibliografian eskainiko da, hemen egindako erabilera argitzea baino ez baitut helburu. Azterketa sakon orok bezala, bibliografia sailkatu eta sintetizatzea garrantzizkoa baita. Azkenik, argitu behar da bibliografia hau guztia laneko tesia indartzeko erabili dela, horregatik, izan du garrantzi berezia autore sionistek beraien eskuz idatzitako testuen irakurketa eta azterketak, sionisten idatzietara sarbidea izan duten autoreen irakurketa bezala. Izan ere, lanean erabilitako autore askok joera ideologiko eta politiko markatua dute, baina honen gainetik, gure tesiaren frogapenak hartuko du garrantzia lan honetan, eta horretarako garrantzi berezia du lider sionistek beraiek esandakoak zein egindakoak.

III. Hipotesiak: Sionismoaren sorreratik, arabiarren kanporatzera

Lan honetan zehar nazionalismo mota zehatz bat eta honek ekarritako ondorioak aztertuko ditugu, sionismoa. Beraz, lan honen helburua ez bada ere, eta nahiz eta labur izan, ezagutu behar dira nazionalismo eta nazioaren inguruan dauden ikuskera teoriko ezberdinak, honek lanaren ikuspuntua guztiz alda dezake eta. Nazionalistek, sionistak barne, oso argi dute iraganak zein paper garrantzitsua jokatzen duen nazioaren eraikuntzan: nazioa zerbait objektibo eta naturala da, zenbait atributuk baieztatzen dutena, hala nola, hizkuntzak, erlijioak, arrazak, lurraldeak edota historia komun batek.

Nazionalismoa aztertu duten ikertzaileen artean, ordea, ez dago adostasunik nazionalismo eta nazioaren sorrera kokatzerako orduan. Bi talde nagusitan bana daitezke teoria nazionalistak: modernistak eta primordialistak. Modernistek uste dute, nazionalismoek sortzen dituztela nazioak, ez alderantziz. Autore hauentzat nazionalismoa ezin daiteke ulertu XVIII-XIX. mendeetatik atzera, nazionalismoa Ilustrazioaren osteko gizarte industrial modernoetan sortzen baita. Nazionalistek iraganeko tresnak erabiltzen dituzte nazioa eraikitzeke, askotan historia edota tradizioak asmatuz zein manipulatzeko. Ikuskera hau azaleratzen aurrena Elie Kedourie historialari britainiarra izan zen 1960. urtean, *Nationalism* liburuan. Kedourierentzat nazioa eraikin artifizial bat da, Ilustrazioak eta Erromantizismoak XVIII. mendetik aurrera eraikitakoa. Ikuskera honek jauzi handi bat jo zuen XX. mendearen azken hamarkadetan Ernest Gellner eta Eric J. Hobsbawm historialariei esker. Gellnerrek, *Nations and Nationalism* (1983) liburuan, modernismoaren nazioaren definizioa finkatu zuen:

El nacionalismo es una teoría de legitimidad política que prescribe que los límites étnicos no deben contraponerse a los políticos, y especialmente –posibilidad ya formalmente excluida por el principio en su formulación general– que no deben distinguir a los detentadores del poder del resto dentro de un estado dado¹.

Gellnerrek, modernista gisa, aitortzen du nazionalismoek, muga etnikoak muga politikoeekin batzeko egindako lanean, iraganeko elementuak manipulatu edota asmatzen dituztela. Baina, era berean, aitortzen du ezinezkoa litzatekela nazionalismo bat sortzea antzinako elementu komun hauek gabe. Nolabait, nazioak eta nazionalismoak eraikuntza moderno bat direla adierazten du, baina ez dio garrantzirik kentzen iraganeko eta herri edo nazio bat osa dezaketen beste elementu batzuei:

El nacionalismo engendra naciones, no a la inversa. No puede negarse que aprovecha –si bien de forma muy selectiva, y a menudo transformándolas radicalmente– la multiplicidad de culturas, o riqueza cultural preexistentes, heredada históricamente. Es posible que se hagan revivir lenguas muertas, que se inventen tradiciones y que se restauren esencias originales completamente ficticias².

Ildo beretik, Gellnerren liburua argitaratu zen urte berean, Benedict Andersonek nazioa “komunitate irudikatu” gisa definitu zuen; beretzat, herri bat baino handiagoa zen komunitate orok behar baitzuen eraikin artifizial bat taldeari batasuna emateko. Ikuskerara hau garatuko zuten bere aldetik, Eric J. Hobsbawm eta Terence Ranger autoreek *The Invention of Tradition* liburuan, non tradizio eta ohitura kultural asko asmatuak direla babestu zuten. Azken bi autore hauek postmodernistatzat ere izan dira definituak.

Badira, ordea, ikuskerara honi aurre egin eta nazioak aro modernoaren aurretik sortutako egiturak direla babesten duten autoreak ere, Adriam Hastings eta John Armstrong, adibidez. Bi autore hauek, modernitatearen muga eraitsi eta nazioa historian zehar garatu den prozesu motel eta iraunkor gisa ikusten dute. Adibidez, Hastingsek nazioaren sorrera Erdi Aroan kokatzen du.

Azkenik, badira bi talde zurrun hauen erdibidean kokatzen diren autoreak ere. Anthony D. Smith eta Miroslav Hroch ikerlariak dira adibide garbiena. Autore hauek ez dira guztiz primordialistak. Baina, aldi berean, ez dute uste nazionalismoaren narrazio nazionaleko elementu guztiak asmakuntza edota manipulazio hutsa direnik. Hroch-entzat, historialari txekiarrarentzat, nazioak eraikin moderno bat dira, baina antzinako komunitateetatik eratorriak. Nazionalistek ezingo lukete nazioaren babesa masa mugimendu politiko gisa sortu antzinako komunitate honen izate objektiborik gabe. Ildo beretik, Smith irakasleak nazio moderno bat oinarri etniko eta komunitario izandun baten gainean eraikitzen denean arrakasta handiagoa lortzen duela babesten du³.

Ikerketa honetan, ez dugu sionismoak erabilitako tresna guztiak modernoak edota modernitatearen aurrekoak diren frogatzeko lekurik, ezta asmorik ere. Juduek XIX. mende amaieran sionismoa azaldu aurretik, bazuten komunitate sentimendu bat, erlijio komunitatetik harago zihoana seguru aski. Kontuan izan behar da, XIX. mendean eta XX. mendearen lehen erdian, Europa ekialdean bere hizkuntza propioa zuen judu komunitatea bazela, *yiddish* komunitatea. Beraz, lan honetan, sionismoak oparoa zen komunitate judu horren irakurketa politiko modernoa egiten duela argudiatuko dugu.

¹ GELLNER, Ernest: *Naciones y nacionalismo*, Alianza Editorial, Madril, 1988 [1983], 14. or.

² *Id.*, 80. or.

³ MORENO ALMENDRAL, Raúl: “El debate académico sobre nación y nacionalismo desde los orígenes hasta la consolidación del predominio anglosajón” in *Arbor*, 2015eko martxoak 3a.

Theodor Herzlek, sionismo politikoaren aitatzat hartzen denak, honela definitzen zuen *Der Judenstaat* liburu aitzindari eta famatuan judutarren auzia:

Je ne considère la question juive ni comme une question sociale ni comme une question religieuse [...]. C'est une question nationale et, pour la résoudre, il nous faut, avant tout, en faire une question politique universelle, qui devra être réglée dans les conseils des peuples civilisés⁴.

Ikusten dugunez, komunitate sozial eta erlijiosotik harago doan irakurketa egin zuen sionismoaren aitzindari den autoreak. Irakurketa nazionalista moderno bat egiten du, bere helburua estatu-nazio moderno bat sortzea zelako Palestinako lurretan, *Eretz Yisrael* lurralde sakratua juduentzat. Izan ere, orokorrean, juduek ez zuten *Eretz Yisrael*-era bueltatzeko inolako asmorik; pogromoetatik ihes zebiltzan juduek Europa mendebaldera edota Estatu Batuetara egiten zuten ihes. Bere sorreran, sionismoak aurre egin behar izan zion errabinoen gehiengoari. Beraz, sionismoa mugimendu nazionalista moderno gisa defini dezakegu, gerora beste hainbat ideologiak baldintzatu zutena: sozialismoak, kolonialismoak eta, azken baten, erlijioak berak. Ikuskera hau garatzeko bai izan daitekeela baliagarri Eric J. Hobsbawm historialari marxistak *Nations and nationalism since 1780* liburuan judutarrei egindako aipua:

Los judíos, dispersos por todo el mundo durante algunos milenios, nunca, dondequiera que estuviesen, dejaron de identificarse a sí mismos como miembros de un pueblo especial y totalmente distinto de las diversas variantes de no creyentes entre los que vivían. En ninguna etapa, al menos desde su vuelta del cautiverio en Babilonia (K.a. 538. urtea), parece que esto entrañara un deseo serio de tener un estado político judío, y no hablemos de un estado territorial, hasta que se inventó el nacionalismo judío en las postrimerías del siglo XIX. Por analogía con el recién inventado nacionalismo occidental. Es totalmente ilegítimo identificar los vínculos judíos con la tierra ancestral de Israel, cuyo mérito se deriva de las peregrinaciones a dicha tierra, o la esperanza de volver a ella cuando llegase el Mesías –pues, a ojos de los judíos, era obvio que no había llegado–, con el deseo de reunir a todos los judíos en un estado territorial moderno situado en Tierra Santa⁵.

Hau da, sionismoaren aurretik juduek Israelgo lurra lurralde sakratu gisa ikusten zuten, bai, baina inolaz ere ez zuten ikusten “etxe nazional” bat eraikitzeke lurralde gisa. Bestalde, sionismoak ematen dio komunitate juduari zentzu politiko modernoa, hau da, nazio moderno izaera.

Sionismoaren afera honek, Estatu judu bat eraiki nahi izatea *Eretz Yisrael*-eko lurretan, bertako populazioarekin zerbait egin beharra ekarri zuen. **Hau da lan honetan frogatzen saiatuko garen hipotesi nagusia: sionismoak, bere sorreratik bertatik, arabiarrek kanporatzeko egin zituen planak.** Ez da pentsatu behar, eta hau frogatzen saiatuko gara ikerketan zehar, 1948ko *Nakba* edo arabiarren kanporaketa kasualitate hutsa edota gerraren ondorio huts izan zenik. Sionismoak argi zuen hasieratik, juduak gehiago izango ziren estatu bat ezarri ahal izateko, arabiarrek beren lurraldetik kanporatu behar zituztela. Honen ondorio zuzena da, 1948an 750.000 arabiar inguru, Israelgo Estatuko lurrak izango zirenetan bizi ziren arabiarren %80a, beren lurretatik kanporatu izana, sarritan bortxazko metodoak erabiliz. Kontuan izan behar baita,

⁴ HERZL, Theodor: “On ne nous laissera pas tranquilles” (1896) in CHARBIT, Denis (ed.): *Sionismes. Textes fondamentaux*, Éditions Albin Michel, Paris, 1998, 46. or.

⁵ HOBBSAWM, Eric J.: *Naciones y nacionalismo desde 1780*, Editorial Crítica, Bartzelona, 1992, 56. or.

1948an *Yishuv*-aren (Palestinako Britaniar Mandatuan bizi ziren judutarrak) esku zeuden lurak %6a baino ez zirela eta populazioaren heren bat baino ez zutela ordezkatzeko⁶. Beraz, ondo planifikatutako kanporatze bat izan zen 1948koa.

Noski, 1948 aurreko sionismoaren planak ez ziren orobat publiko egin. XIX. mende hasieratik eta 1948ra arte, bizitako testuinguru historikoaren arabera, sionismoak bere lekualdatze eta kanporaketa planak publiko egiten zituen edo beste batzuetan barne bileretako plan sekretu bezala geratzen ziren. Hala, askotan sionisten benetako asmoak jakin ahal izateko, erakunde sionisten artxiboetara edota buruzagien eguneroko pribatuetara jo behar da. Iritzi publikoaren aurrean egindako adierazpen oro, zehatz mehatz neurtzen baitzuten buruzagi sionistek, beren Estatu judu proiektuaren izen ona kaltetuta ikus ez zedin. Baina sionismoaren sektore guztiek konpartitzen zuten, Palestinako lurretan Estatu judu bat ezarri ahal izateko, bertako populazio arabiarra indarrez edo beraien borondatez kanporatu behar zela. Iritzi hau ezker laboristak, Ben-Gurion buru zela, eta eskuin errebisionistak partekatzen zuten. Beraien estatu egitasmoak ezberdinak izanagatik, sionismoaren barnean ez zegoen arabiarrentzako lekurik etorkizuneko Estatu juduan, hauek minoria bat izatea onartu ezean. Sektore guzti hauek buruan zutena ez baitzen hiritar guztientzako estatu bat lortzea; alderantziz, juduentzako estatua nahi zuten. Beraz, populazioaren gehiengoak bere estatuaren lurretan juduak izan beharko zuen, eta hau ziurtatzeko arabiar kopuru handi batek bere lurra utzi behar zuen. Noski, ondoren, nahiz eta ez izan ikerketa honen helburua hau aztertzea, Israelgo Estatuak lege ugari ezarri ditu bere populazioaren gehiengoa judua izaten jarrai dezan: Itzulerarako Legea, ezkontza eta dibortzio legeak edota okupatutako lurraldeetako kolonoei emandako laguntzak. Hau dela eta, esan dezakegu, sionismoaren proiektua herrialde nagusiki judu bat sortzea izan zela, eta izaten jarraitzen duela. Hori bai, kontuan izan behar da Israelgo Estatuak hasieratik bertatik izan duela bere muga barnean berak herritar ez judu gisa definitzen duen populazioaren heren bat inguru, “bonba-demografiko” gisa definitzen dutena.

Bestalde, sionismoaren adar guztiek partekatzen zuten beste ikuskera bat honako hau da: Palestinako lurretan bizi diren arabiar guztiek ez dutela inolako lotura nazionalik bizi diren lurrarekiko. Sionismoaren ustetan, Palestinako arabiarrek “nazio” arabiar handiago baten parte dira; beraz, berdina zaie Palestinan bizi zein Siria, Jordania edo Irakera lekualdatzea. Sionistentzat, palestinarrek inguruko lurralde arabiarretan berdin bizi zitezkeen; juduek ordea, mundu guztian zehar erbestean zegoen herriak, *Eretz Yisrael* baino ez zuen beraien berezko nazioari estatu forma eman ahal izateko. Bestela esanda, palestinarrek ez ziren nazio bat eta ez zuten inolako eskubiderik lur haietan bizitzeko; herri juduak, ordea, eskubide historiko guztia zuen Israelgo lurretan estatu bat eraiki ahal izateko. Bibliak, herriaren liburuak, eskubide historiko guztia ematen baitzion. Lan honetan landuko dudan tesiaren sintesia, Nur Masalha Londresko St. Mary’s University-ko irakasle eta historialari palestinarrek laburbiltzen du honako paragrafo honetan:

No debe pensarse que el concepto de transferencia era abrazado sólo por radicales o extremistas dentro del movimiento sionista. Por el contrario, era aceptado por casi todos los sectores de opinión, desde la derecha revisionista hasta la izquierda laborista. Prácticamente cada miembro del panteón sionista de padres fundadores y líderes

⁶ MASALHA, Nur: *La expulsión de los palestinos. El concepto de “transferencia” en el pensamiento político sionista 1882-1948*, Bósforo Libros eta Editorial Canaán, Madril, 2008 [1992], 7. or.

importantes lo apoyó e impulsó de una manera u otra, desde Chaim Weizmann y Vladimir Jabotinsky hasta David Ben-Gurion y Menahem Ussishkin⁷.

Jarraian datozen orrietan, hipotesi hau landuko dugu sakonki, sionismoaren sorrera eta lider sionista ezberdinen kanporaketa planak aztertuz. Guztiek babesten baitzuten, ezberdintasun nabarmenak badira ere gaia jorratzeko moduan, arabiar populazioaren kanporaketa edo lekualdatzea. Ziur gai asko, eta interesgarriak, geratzen direla jorratu gabe. Adibidez, arabiarren ikuspuntuak leku gutxi izango du lan honetan, juduen nazionalismoan zentratuko baita gehienbat. Interesgarria litzateke, gatazka honen ikuskera osoago bat izateko, palestinar nazionalismoaren ikuskera bat izatea. Izan ere, esan daiteke, neurri handi batean, palestinar nazionalismoaren gorakada sionismoaren kanporatze planen ondorio zuzena dela; beraz, modu batean behintzat, sionistek arrazoi izan zezaketen arabiarrek sentimendu nazional palestinarrik ez zutela esaten zutenean. Zoritxarrez, lan honetan ez dugu izango arabiarren edo palestinarren egoeran sakontzeko lekurik izango. Helburu nagusia sionismoaren sorrera, defendatzen dituen premisa nagusiak eta arabiarrek kanporatzeko gauzatu zituzten plan nagusiak aztertzea izango baita.

2. MARKO TEORIKOA

1. Sionismoa mugimendu nazionalista moderno gisa

Sionismora hurbiltzeko, lehenik eta behin, sionismo eta judaismo terminoen artean bereizketa argi bat zehaztu behar da. Izan ere, maiz nahasten dira termino erlijiosoak eta politikoa, eta judu guztiak ez dira sionistak ezta sionista guztiak juduak. Adibidez, Estatu Batuetako kristau ebanjelikoak izan dira hasieratik Israelgo Estatuaren babesle sutsuenetarikoa. Gainera, mundu guztiko judu guztiak ez dira bizi Israelgo Estatuan, sionismoak nahiko lukeen bezala. Egun, munduan 14,4 milioi judutar bizi direla kalkulatu da, hau da, munduko populazio osoaren %0,2 baino ez⁸. Hauetatik, hamabi milioi judu pasa Israel eta Estatu Batuetan bizi dira: 5,7 milioi Estatu Batuetan eta 6,3 milioi Israelgo Estatuan. Beraz, bi herrialde hauek munduko judutar populazioaren %80a baino gehiago biltzen dute. Kontuan hartzeko datua da ere Israelgo Estatuak bere burua “mundu guztiko juduen etxe” gisa definitzen duela eta, immigrazio judua sutsuki bultzatzen badu ere, munduko judu guztien %40k baino ez dutela erabaki bertara lekualdatzea; gehienak beraien jatorrizko herrialdeetan bizi dira.

Datu demografikoez gain, kontuan izan behar da juduak historian zehar komunitate erlijioso bat baino gehiago izan direla, baina soilik XIX. mende amaieran sortzen direla nazio moderno gisa, sionismoak bultzatuta. Sionismoak judutar herria nazio moderno gisa egituratu zuela esaten dugunean, honen izenean lurralde jakin bat eskatu zuela, *Eretz Yisrael*, esaten dugu. Helburu honetarako, lehen tresna nagusia Biblia izan zen, zehazki Itun Zaharra, eta zehatzagoak izanda Pentateukoa edo Tora, Biblia osatzen duten lehen bost liburuak. Gogoratu beharra dago, Itun Zaharrean zehar kontaktzen diren kontakizunak ez direla gizadiaren narrazio unibertsal bat, aitzitik, Israelgo herriaren

⁷ MASALHA, *op. cit.*, 18. or.

⁸ Datu hauek Berman Jewish Databank erakundeak urtero argitaratzen dituen txostenetatik 2016ko azken txostenari dagozkie.

historia eta honek Jainkoarekin izandako harremana azaltzen dizkigu. Israelgo herria aktore printzipal eta ia bakarra da Itun Zaharrean.

Narrazio biblikoa Edeneko lorategian hasi eta Kain eta Abelen kontakizunarekin zein Noeren uholde handiarekin jarraitzen du. Kontutan izan behar da, sionismoaren narrazio nazionalan, Genesian agertzen diren lehen kontakizun hauek ez dutela garrantzi handirik. Izan ere, oraindik narrazio guzti hauek ez baitira herri zehatz batean zentratzen. Familia bakar baten eta haren ondorengo izango den herri oso baten kontakizuna Abrahamekin hasten da. Abraham Jainkoak bere babespean “Agindutako Lurrera” gidatzeko aukeratu zuen abeltzaina izan zen. Bibliako idatzien arabera, Abraham Mesopotamiako Ur hiritik irten zen, K.a. XXII-XVIII. mende bitartean⁹, Kanaaneko lur promestuaren bila. Bertan, Jainkoarekin itun bat sinatu zuen eta bere ondorengoek lurralde osoa oinordetzan jasoko zutela adostu zuten biek.

Beraz, sionismoak Bibliatik eratorritako “egia” herri sakratu baten historia da, gerora, irakurketa sekular moderno batek historiako lehen nazio gisa aurkeztuko zuen “egia”. Baina, funtsean, sionismoaren ardatz ideologiko eta historiko gehienak, Bibliako kontakizunetan oinarritzen dira¹⁰.

Bibliak sionismoaren narrazio nazionalan duen garrantziaz ohartzeko, 1948ko Israelgo Independentzia Adierazpena ikusi besterik ez dago. Bibliak Israelgo Estatu aldarrikatzerako orduan paper garrantzitsua betetzen du adierazpenean, herri juduari lurraerikiko jabetza ukazina ematen diola ulertzen baita:

Eretz Israel ha sido la cuna del pueblo judío. Aquí se ha forjado su personalidad espiritual, religiosa y nacional; aquí ha vivido como pueblo libre y soberano; aquí ha creado una cultura con valores nacionales y universales y ha legado al mundo entero el impercedero Libro de los Libros¹¹.

Sionismoak juduen narrazio nazionala osatzeko erabilitako bigarren elementua juduen erbestearen historia izan da. Sionismoarentzat, juduak historian zehar bi aldiz izan ziren erbesteratutak *Eretz Yisrael*-etik: lehenik Judeako Erresuma erori eta Lehen Tenplua eraitsi ondoren, K.a. 586. urtean, eta bigarrenik K.o. 70. urtean erromatarrek Jerusalemeko Bigarren Tenplua eraitsi ondoren. Jarraian, “nazioa” bi mila urte luzez erbestean galdurik ibili zen, baina sionismoaren esanetan “herri juduak” ez zuen inoiz bere “nazio” sentimendua eta *Eretz Yisrael*-era bueltatzeko nahia galdu. Orduan, XIX. mende bukaeran, herria bere lo sakonetik esnatu eta bere jaioterrira bueltatzeko prest zegoela ondorioztatu zuen sionismoak.

Baina, Bibliarekin egin bezala, erbestearen narrazioak ere errealitatea eta mitoak nahasten zituen. Chaim Milikowsky, Bar-Ilan unibertsitateko ikertzailea, erromatar

⁹ Ez dago adostasunik datan, baina Israel Finkelstein eta Neil Asher Silberman arkeologo israeldarrek egindako ikerketak, Bibliako datak oinarri hartuta, Abrahamen irteera, hau pertsonaia erreal gisa existitu balitz behintzat, Ka. 2100. urtean zonaldean izandako migrazio mugimenduen baitan kokatzen du. FINKELSTEIN, Israel eta SILBERMAN, Neil Asher: *La Biblia desenterrada*, Siglo XXI, Madril, 2003 [2001], 51. or.

¹⁰ Anthony D. Smith nazioan eta nazionalismoa aditu bilakatu zen irakaslearen definizioari jarraiki, nazio batek bere burua egituratzeko ez litzuke behar hizkuntza eta lurralde jakin bat. Nahikoa litzateke etnia jakin horrek lurralde zehatz batekin lotzen duen iragan mitiko bat izatea. Sionismoak, modu batean, bere egiten du definizio hau; izan ere, bere lur eskaerak Biblia bezalako testu ez historiko baten daude oinarrituta, baina honen irakurketa sekular batek herri juduari batasuna eman zion. SAND, Shlomo: *La invención del pueblo judío*, Akal, Madril, 2011 [2008], 41.or.

¹¹ DE LANGE, Nicholas: *El judaísmo*, Akal, Madril, 2011, 28. or.

garaiko iturri errabiniko ugari aztertu ondoren, honako ondorioetara iritsi da: K.o. I eta II. mendeetan *galut* terminoa (“erbeste” hebreeraz) zapalkuntza politiko bat adierazteko erabiltzen zela. Beste hainbat iturri errabinikok *galut* terminoa soilik Babiloniako erbesteaz mintzatzeko erabiltzen zuten¹². Beste historialari batzuek ordea, erbestearen mito kristautasunaren gorakadarekin lotzen dute. Adibidez, Yisrael Yaakov Yuval Jerusalemeko Unibertsitate Hebrearreko irakasleak, erbestearen mito kristautasunak ezarritako narrazioarekin lotzen du: kristauen arabera, juduak zigortuak izan ziren Jesusen hilketa zela eta. Hau da, kristautasunak juduek Jesus ez onartzeagatik eta hau hiltzeagatik Jainkoaren zigorra jaso zutela zabaldu zuen. Ondoren, denboraren poderioz, judaismoak eta sionismoak kristautasunaren mito hau bere egingo zuten¹³.

Gainera, ez zen juduen itzulera masiborik izan Palestinako lurretara XX. mendeko bigarren laurdenera arte, nazien sarraskia gertatu eta emigratzeko beste lurralde batzuetan atak itxi zizkieten arte. Espainiako Errege Katolikoek juduen kanporaketa agindu zutenean 1492. urtean, gehiago juduak mediterraneoko beste hiri batzuetara lekualdatzea hautatu zuen. 1880tik aurrera Europa ekialdean *yiddish* komunitate juduaren aurka pogromo basatiak hasi zirenean, juduen masa emigrazio handi bat gertatu zen mendebaldeko estatuetara. Zehazki, 1881. urtetik 1914. urtera 2,75 milioi judutarrek utzi zuten Europa ekialdea, %85a Estatu Batuetara lekualdatu zen¹⁴. Judu hauen %3ak baino gutxiagok erabaki zuten garaiko Palestinara lekualdatzea¹⁵.

Hau horrela izan zen, juduen gehiago batentzat Palestinako lurak ez zirelako erakargarriak, eta, bestetik, XIX. mendean sionismoak berrirakurketa sekular bat egin arte, erlijio juduaren buruek, errabinoek, ez zutelako inolako deirik egin *Eretz Yisrael*-era bueltatzeko. Juduen ikuskera erlijiosotik, ezingo ziren “lur sakratura” bueltatu Mesiasaren etorrera gauzatu arte. Israeleko lurrera bueltatzeko debeku famatuena Babiloniako Talmudak¹⁶ jasotzen du:

«Que Israel no debe [buscar] alzarse sobre el muro; que el Santísimo, Bendito sea Él, ordenó a Israel que no se alzara contra las naciones de la tierra; que el Santísimo, Bendito sea Él, ordenó a los idólatras que no esclavizaran a Israel en exceso» (*Taractate ketubot 110: 72*)¹⁷.

“Hormaren gainean” ez altxatzeko agindua Israelera emigratio masibo bat egiteko debekua zen. Lege sakratu honek mendeetan zehar judu sinestunek Israelera ez joateko erabakia hartzea ekarri zuen. Horregatik, sionismoa sortu zenean XIX. mende bukaeran, errabinoen gehiago zabal bat mugimendu nazional honen aurka mintzatu zen. Herzl-ek sionismoak burutuko zuen lehen biltzarrerara Alemaniako Errabinoen Batasuna gonbidatzen saiatu zenean 1897an, hauen ezezko borobila jaso zuen. Are gehiago, Alemaniako 90 errabino ordezkarietatik 88k sionismoaren biltzarraren aurkako gutuna sinatu zuten, “protestaren errabinoak” izenpean:

¹² SAND, Shlomo: *La invención de la Tierra de Israel*, Akal, 2013 [2012], 150. or.

¹³ *Id.*, 150. or.

¹⁴ DE LANGE, *op. cit.*, 21. or.

¹⁵ SAND, *op. cit.*, 272.or.

¹⁶ Talmuda K.o. I-VI mendeetan zehar errabinoek emandako ahozko irakaspenak jasotzen dituen eta juduen bizitza arautzen duen liburu-bilduma da. Bibliaren ondoren bigarren testu sakratuena. Konkretuki, “Babiloniako Talmuda” da Talmudaren bertsio garrantzitsuena.

¹⁷ SAND, *op. cit.*, 152. or.

Constituimos una comunidad separada únicamente en lo tocante a la religión. Por lo que atañe a la nacionalidad, nos sentimos plenamente unidos a nuestros compañeros alemanes y, por lo tanto, nos esforzamos por lograr la realización de los objetivos espirituales y morales de nuestra querida patria con el mismo entusiasmo que ellos¹⁸.

Beraz, sionismoak judaismoa sekularizatu eta nazionalizatu zuela esan dezakegu. Elementu erlijiosoak erabiltzen bazituen ere bere helburu politikoak erdiesteko, pentsamendu nazionalista eta kolonialistaren sintesi bat dela esan dezakegu. Ez baita ahaztu behar, sionismoa inperialismoaren garai bete-betean jaiotzen dela.

Sionismo politikoaren aitzindari eta aitatzat Theodor Herzl kazetari austriarra hartzen da. Herzl-ek 1896an, *Der Judenstaat* liburu famatuan sionismoaren oinarriak ezarri zituen. Bere obraren ideia nagusiak Londreseko *Jewish Chronicle* aldizkarian laburtu zituen honela:

Somos un pueblo: Un Pueblo. Nos hemos esforzado sinceramente por fundirnos en la vida social de las comunidades que nos rodean y conservar la fe de nuestros padres. No nos ha sido permitido... Somos un pueblo: nuestros enemigos nos han hecho uno a pesar nuestro, como sucede repetidamente en la historia. La aflicción nos une, y así unidos descubrimos de improviso nuestra fuerza. Sí, somos lo bastante fuertes para formar un Estado, y un Estado modelo¹⁹.

Hitz hauetan antisionismoaren eragina nabarmendu daiteke; juduak historian zehar, zeuden lekuan zeudela, jazarriak izan direnez, hauek estatu bat osatu behar dute euren biziraupena ziurtatu ahal izateko. Herzl-en ustez, pertsekuzio hau ez zen gertatzen arrazoi erlijioso edo kulturalengatik; juduena arazo nazional bat zen; beraz, konponbide nazional bat behar zuen. Honetarako, Herzl-ek laguntza eskatuko die mendebaldeko potentzia kolonialei, estatu propio bat lortzeko. Honakoa zen autore austriarrak *Der Judenstaat*-en laburbiltzen zuen eskaera: “Que se nos dé la soberanía sobre una porción de la superficie de la tierra suficiente para cubrir nuestras necesidades justas como pueblo y nosotros nos encargaremos de todo lo demás”²⁰.

Noski, Herzl-ek garrantzia ematen zion herri juduak Palestinako lurarekin zuen lotura historikoari, baina bere lehen helburua nazioarteko komunitateak, eta batez ere potentzia europar nagusiek, juduek estatu bat izateko zuten eskubidea onar zezatela zen. Palestina eta Argentinaren inguruan zalantzak izan bazituen ere, bi lur horietatik bakarra jotzen zuen juduen herri historiko eta legitimotzat. Hala ere, 1903an, Erresuma Batuek sionistei Ugandan (egungo Kenya litzatekeena, garaiko britainiar kolonia zena) lurralde bat uzteko eskaintza egin zienean, sionistek seriooki eztabaidatu zuten aukera hau. Herzl-ek ontzat jo zuen proposamena eta Seigarren Biltzar Sionistak onartu egin zuen proposamena, nahiz eta 1905eko Zazpigarren Biltzarrak atzera bota plan hau²¹.

¹⁸ DE LANGE, *op. cit.*, 47. or.

¹⁹ *Id.*, 42. or.

²⁰ KRÄMER, Gudrun: *Historia de Palestina: Desde la conquista otomana hasta la fundación del Estado de Israel*, Siglo XXI, 2009 [2002], 104. or.

²¹ Herzl-ez gain, hizkuntza hebreera modernoaren pizkundearen aitatzat jotzen denak, Eliezer Ben-Yehudak, ere ontzat jo zuen Ugandako plana. Haren ustez, judutarrentzat garrantzitsua herria zen eta ez lurra, “*Eretz Yisrael* Palestinatik kanpo” eraiki zezaketela uste zuen. *Id.*, 332. or.

II. Arabiarren kanporaketa pentsamendu sionistan

Behin nazioa eraikita, etorkizuneko Estatu judua izango zen lurraldeko populazio lokalarekin zer egin zen sionismoaren hurrengo afera. Ikusiko dugunez, Herzl eta sionismo politikoaren beste sortzaile batzuk jada mintzatu ziren hasiera-hasieratik arabiarren kanporatzeaz. Baina, korrante sionista berri bat sortzen zen bakoitzeko, beren lider edota bozeramaile nagusiak kanporaketa erradikalago edota moderatuago baten alde mintzaten ziren.

Garrantzizkoa da sionismoaren barneko adar ezberdinen kanporaketa planak eta proposamenak aztertzea, honek laguntzen baitigu 1948ko *Nakba* hobeto ulertzen. Hau, denbora luzez eztabaidatu eta prestatutako plan zehatz baten ondorio izan baitzen. Noski, *Nakba* bere osotasunean ulertu ahal izateko, kontuan izan behar da inguruko estatu arabiarrek garaian izandako jarrera, arabiar ugarik estatu hauen propaganda dela eta utzi baitzituzten euren lurrak gerra errez irabaziko zutelakoan, eta ondoren Israelen bueltatzeko ezetzarekin aurkitu ziren. Baina, baldintza guzti hauek baliaturik, sionismoak mugimendu politiko gisa hasieratik bultzatu zuen helburuetako bat lortu zuen: Israelgo Estatuan juduek gehiengo garbi bat osatzea, horretarako arabiarrek kanporatu behar baziren ere.

II.1. Theodor Herzl eta aita sortzaileak

Theodor Herzl (Budapest, 1860 – Edlach, Austria, 1904) hartzen da sionismo politikoaren aita edo sortzaile nagusitzat, *Der Judenstaat* obraren autorea eta Munduko Erakunde Sionistaren bultzatzaile nagusia izan baitzen. Herzl-ek zuzenbide eta kazetaritza ikasketak egin zituen, azken hau izanik bere ogibide nagusia. Frantziako kazeta batentzat idazten zuela, goraka zihoan antisemitismoaren arazoak, juduen auzian kontzientzia hartzea eta 1896an *Der Judenstaat* liburuan juduentzako estatu independente bat aldarrikatzea ekarri zuen. Hau baitzen antisemitismoari aurre egiteko modu bakarra autorearentzat. Orduetik, ideal honen lortzera bideratu zuen bere bizitza guztia.

Bere testu publiko nagusietan Herzl-ek edo ez zituen Palestinako arabiarrek aipatzen edota etorkizuneko Estatu juduan hauek arabiarrekin elkarlanean biziko zirela aipatzen zuen, estatu integratzaile bat osatuko zutela. Lehen kasua *Der Judenstaat* liburuaren kasua da, bertan arabiarrek ez dira inondik inora aipatzen. Kontuan izan behar da, liburu hau publikatzerako orduan Herzl-ek oraindik ere ez zuela argi zein izango zen etorkizuneko Estatu juduaren kokapena. Izan ere, Herzl-ek liburu honetan bertan, Argentinako, Patagoniako zehatzagoak izanda, edo Palestinako lurrak hautatzea komenigarriagoa litzatekeen hausnartzen du. Soilik urtebete beranduago, 1897an, Lehen Kongresu Sionistak finkatuko zuen *Eretz Yisrael* Estatu juduaren etorkizuneko kokapen gisa. Edonola, etorkizuneko estatu independentearen eraikuntzari begira ez zuen populazio lokalarekin zer egingo zen argitzen obra honetan. Bestalde, 1902an Herzl-ek bere bigarren obra nagusia publikatu zuen *Altneuland* (“Lur zahar berria”). Bertan etorkizuneko Estatu juduaren aurkezpena egin zuen, antolaketa erak, sistema politiko eta ekonomikoa zehaztuz. Hemen bai aipatu zituen arabiarrek, jada erabakia baitzen etorkizuneko estatuaren kokapena *Eretz Yisrael*, arbasoen lur sakratua izango zela. Liburu honetan Herzl-ek Estatu juduaren balore politiko nagusiak zehazten ditu; horien artean, legalitateari errespetua, tolerantzia erlijiosoa, emakumeen emantzipazioa eta

“juduen eta arabiarren arteko anaitasuna”²². Aurrerago, etorkizuneko estatuan bere erlijio edota naziotasuna dela eta inor ez zela baztertua izango baieztatzen zuen autoreak:

Et puis, il y avait la séduction de la liberté. On n’avait à craindre aucune humiliation en raison de sa confession ou de sa nationalité. [...] Car la tolérance ne pourra jamais reposer que sur la réciprocité et puisque les Juifs, qui sont ici en majorité, se sont, dès le début, montrés tolérants, on leur doit partout la même tolérance²³.

Pasarte honetan bada azpimarratzeko zerbait, Herzl-ek etorkizuneko estatu hori jada egitate bat balitz bezala deskribatu zuen eta juduez mintzo zen estatuko gehiengo gisa eta gehiengo honek izango luke beste nazionalitateetako jendea tolerantziaz tratatzeko erantzukizuna. Baina beti gutxiengo diren heinean, noski.

Hitz hauekin ageri zen Herzl garaiko iritzi publikoaren aurrean, baina iritzi hauek ez zuten islatzen sionismo politiko modernoaren aitak benetan buruan zituen asmoak. Hauek ezagutzeko, bere eguneroko eta idatzi pribatuetara jo behar dugu. Izan ere, 1895ean eguneroko pribatu bat idazten hasi zen, non bere gogoeta eta asmoak azaltzen zituen judutarren auziaren inguruan. Hemen idatzitako ideia ugari gerora mugimendu sionistako beste lider askok errepikatuko zituzten ideien hastapena baino ez ziren: populazio lokalaren lekualdatzea, lurraren erostea eta hau soilik juduei saldu ahal izatea edota gobernu lokalekin negoziaketa sekretuak eramatea bertako herritarrak kontuan izan gabe. 1895eko ekainaren 12ko sarreran, Herzl-ek bere egunerokoan idatzi zuen estatu sionistako populazio ez-judua lekualdatzeko eta landa eremu pribatuak desjabetzeko zuen asmoa. Honakoa idatzi zuen Herzl-ek:

When we occupy the land, we shall bring immediate benefits to the state that receives us. We must expropriate gently, the private property on the estates assigned to us. [...] We shall try to spirit the penniless population across the border by procuring employment for it in the transit countries whilst denying it any employment in our own country²⁴.

Der Judenstaat obrarekin gertatu bezala, testu honetan ere ez dira Palestina edota arabiarrek aipatzen Herzl-ek oraindik ez baitzuen Estatu juduaren balizko kokapena hautatu. Baina bai mintzo da populazio lokalaz garbiki, eta bereizketa garbi bat eginez gainera, populazio lokal aberats eta lur-jabearen zein gainerako herri xehearen artean. Honela segitzen du bere egunerokoan:

The property-owners will come over to our side. Both the process of expropriation and the removal of the poor must be carried out discreetly and circumspectly. Let the owners of immovable property believe that they are cheating us, selling us things for more than they are worth. But we are not going to sell them anything back. [...] We shall then sell only to Jews, and all real estate will be traded only among Jews²⁵.

²² HERZL, Theodor: “Terre ancienne, terre nouvelle” (1902) in CHARBIT, *op. cit.*, 145. or.

²³ *Id.*, 150-151. or.

²⁴ SIMONS, Chaim: *A historical survey of proposals to transfer Arabs from Palestine 1895-1947*, Gengis Khan Publishers, Ulan Bator, 2004 [1998], 16. or.

²⁵ *Id.*, 17. or.

Plan guzti hauek publiko egin ez zitezen kontu berezia izan zuen Herzl-ek. Hauek bere eguneroko pribatuan idatziz eta ez bere obra nagusietan, non “tolerantzia” eta “anaitasunaz” mintzo zen. Bere eguneroko pribatuen garrantziaz konturatzeko, Munduko Erakunde Sionistaren zuzendaritzan bere ondorengo izan zen David Wolffsohn-en (Darbenai, Lituania, 1856 - Hanburgo, 1914) hitzak irakurtzea besterik ez dago. Herzl hil ondoren honen eguneroko pribatuak publikatzearen aurkari sutsua izan zen Wolffsohn. Honakoa adierazi zuen 1906an: “You will ruin Herzl’s name if you publish his diaries. Whoever reads them is bound to believe that he was a fool and a swindler”²⁶.

Izan ere, asmo guztiz polemikoak erakutsi zituen Herzl-ek bere eguneroko pribatuan. Lehenengo, bertako populazioarentzat beste herrialde batean enplegua bilatzen saiatuko zirela nabarmentzen bazuen ere, aurrerago beste asmo aski ezberdinak azaldu zituen populazio lokalarentzat. Etorkizuneko estatua juduek ezagutzen ez zituzten animalia basatiez beterik bazegoen, bertako populazioak izango zuen hauek kanporatzeko ardura:

If we move into a region where there are wild animals to which Jews are not accustomed –big snakes etc– I shall use the natives, prior to giving them employment in the transit countries, for the extermination of these animals. High premiums for snake skins, etc, as well as their spawn²⁷.

Hitz hauek ulertzeko, Herzl-ek idatzi zuen garaia, XIX. mende amaiera XX. mende hasiera, inperialismoaren garai gorena izan zela gogoratu behar dugu. Potentzia kapitalista nagusiak kolonien konkistan murgildurik zebiltzan eta hau iritzi publikoaren aurrean justifikatzeko “zibilizatu gabeko lurraldeak zibilizatzea” zihoazela asmatu behar izan zuten potentzia hauen ordezkari politikoek. European nagusi zen pentsamendu hegemoniko hau juduen auziarentzako birsortu baino ez zuen egin Herzl-ek. Palestina edota Argentina aukeratzeko hausnartzen ari zela, Palestinako aukeraz mintzatzean tonu argiki eurozentriko eta kolonialistan mintzo zen Herzl *Der Judenstaat*-en:

La Palestine est notre inoubliable patrie historique. [...] Pour l’Europe, nous constituerions là-bas un morceau de rempart contre l’Asie, nous serions la sentinelle avancée de la civilisation contre la barbarie. [...] L’Europe, qui devrait garantir notre existence²⁸.

Orokorrean, jarrera eurozentriko bera erakutsi zuten Herzl-ekin batera sionismo politikoaren bultzatzaile izan ziren lehen lider sionistak. 1897an Basilean (Suitzan) burututako Lehen Biltzar Sionistak adostutako programak “lege publikoak babestuta *Eretz Yisrael*-en herri juduarentzako etxe nazional bat eraikitzea” adostu zuen. Horretarako, lau helburu finkatu zituen: 1) Artisau, nekazari eta langile juduak finkatzea *Eretz Yisrael*-en 2) Munduko judu guztien batasuna bultzatzeko nazioarteko erakunde baten sorrera 3) Kontzientzia nazional juduaren sustapena eta babesa 4) Nazioarteko gobernuen onespena²⁹. Berrero ere, Palestinako garaiko populazio lokala ez zen inondik agertzen.

²⁶ SIMONS, *op. cit.*, 22. or.

²⁷ *Id.*, 17. or.

²⁸ HERZL, Theodor: “Palestine ou Argentine?” (1896) in CHARBIT, *op. cit.*, 310. or.

²⁹ Ikusi Basileako Programaren puntuak: <http://www.jewishvirtuallibrary.org/first-zionist-congress-and-basel-program-1897>

Sionismoaren hastapenarekin batera, Israel Zangwill (Londres, 1864 – Midhurst, Erresuma Batua, 1926) sionismoaren propagandista eta 1925era arte erakunde territorialistako buru nagusienetarikoa izandako idazle ingeles-judutarrak mendebaldeko herrietan zehar zabaldu zuen sionismoaren helburua “herririk gabeko lur bat, lurrik gabeko herri bati” eskaintzea zela. Baina, Zangwill-ek 1897an Palestinara bidaiatu zenak, laster onartu zuen lur hau ez zegoela hutsik eta, gainerako lider eta bozeramaile sionisten gehiengo zabala bezala, arabiar populazioaren kanporatzea proposatu zuen. Beharrezkoa bazen indarkeria erabilita ere. Honela zioen 1904an *The Maccabean* egunkari judu amerikarrean idatzirikoa artikulua batean:

There is, however, a difficulty from which the Zionist dares not avert his eyes, though he rarely likes to face it. Palestine proper has already its inhabitants... So we must be prepared either to drive out by the sword the tribes in possession as our forefathers did, or to grapple with the problem of a large alien population, mostly Mohammedan and accustomed for centuries to despise us³⁰.

Beranduago, 1920an argitaratu zuen *The voice of Jerusalem* liburuan argiki erakutsi zuen sionismoan sakonki sustraitutako pentsamendu nagusietako bat: Palestinan ez zen lur horrekin lotura nazionalik zuen herririk, gehienez Zangwill-en hitzetan, bertan “kanpamentu arabiar” bat baino ez zen³¹. Beraz, arabiarrek beraien “dendak jaso” eta Ekialde Hurbilean zituzten milaka kilometroetako beste lur batera joatea besterik ez zuten³².

Lehen lider sionistengan zabalduz joan zen arabiarrek kanporatzeko edota lekualdatzeko ideia. Batzuk gehiago neurtzen zituzten euren adierazpenak, Leo Motzkin (Kiev, 1867 – Paris, 1933) mugimenduko bozeramaile liberalenetako baten kasu eta alderdi ekonomikoari ematen zion garrantzia, adibide gisa 1917an eginiko adierazpen hauek: “El traslado de tantísimos árabes quizá parezca a primera vista inaceptable desde el punto de vista económico, pero no obstante es una opción práctica. No se requiere una cantidad de dinero excesiva para reubicar una aldea palestina en otro territorio”³³. Baina, beste batzuk, Menahem Ussishkin (Dubrouna, Bielorrusia, 1863 – Jerusalem, 1941) bezala, Judutar Funts Nazionalaren³⁴ buru izandakoa urte luzez, adierazpen erradikalago eta garbiak egiten zituzten inolako aitzakiarik gabe: “Si hay otros habitantes ahí (en Palestina), se los debe transferir a algún otro lugar. Debemos tomar la tierra. Tenemos un ideal más grande y más noble que preservar a varios cientos de miles de campesinos árabes”³⁵.

Idea guzti hauek proposamen zehatz batean biltzen aurrena gerora Israeleko Estatuko lehen presidente izango zen Chaim Weizmann (Motal, Bielorrusia, 1874 – Rejovot, Israel, 1952) izan zen. 1930ean plan oso bat osatu zuen Palestinako arabiarrek Transjordaniako lurretara lekualdatzeko. Plana 1929an arabiar errebolta batean 133 juduren hilketaren ondoren proposatu zien lider politiko britainiarrei, orduan Palestinako Mandatuaren jabeak. Hori bai, sionisten jarrera ohikoari jarraiki, urte batzuk

³⁰ SIMONS, *op. cit.*, 54. or.

³¹ MASALHA, *op. cit.*, 23. or.

³² *Id.*, 33. or.

³³ PAPPÉ, Ilan: *La limpieza étnica de Palestina*, Crítica, Bartzelona, 2008 [2006],

³⁴ Palestinan juduentzako izango ziren lurren salerosketan lan egiten zuen erakundea.

³⁵ Jerusalemeko kazeta bati 1930ean egindako adierazpenak. MASALHA, *op. cit.*, 64.or.

lehenago publikoan adierazpen arras ezberdin batzuk egin zituen Londreseko Biltzar Sionistan 1919an:

We cannot go into the country like Junkers, we cannot afford to drive out other people. We who have been driven out ourselves cannot drive out others. We shall be the last people to drive off the Fella from his land; we shall establish normal relations between us and them. The Arabs will live among us; they won't suffer; they will live among us as Jews do here in England. This is our attitude towards the Arabs. Any other attitude is criminal, childish, impolitic, stupid³⁶.

Adierazpen hauek guztiek bi kontu uzten dituzte argi; sionistek hasiera batetik argi zutela Palestina ez zegoela hutsik, sionismoaren hastapen urteetan bertan judutar baino arabiar askoz gehiago bizi zirela. Baina, biztanle batzuk baziren ere, hauek ez zuten mendebaldeko lider sionisten onespenerik edota aitortzerik merezi. Garaiko pentsamendu inperialista kolonialistarekin bat egin zuten sionismoaren lider sortzaile nagusiek.

II.2. David Ben-Gurion eta sionismo laborista

David Ben-Gurion (Plonsk, Polonia, 1886 – Sde Boker, Israel, 1973) sionismo laboristaren edota ezker sionistaren ideologo eta lider nagusienetako bat izan zen. Halaber, Israelgo Estatuko aurreneko lehen ministroa izan zen, eta berak aldarrikatu zuen Israelgo independentzia 1948ko maiatzaren 14an. Sionismo laborista, edo ezkertiarra, korrante nagusia izan zen sionismoaren barnean Israelgo Estatua sortu eta 1970. hamarkadara arte gutxienez. *Mapai* alderdi politikoa eta *Histadrut* sindikatua izan ziren korrante honen ordezkari nagusiak, biak Ben-Gurionen eraginpean sortuak.

Ben-Gurion izan zen juduek *Eretz Yisrael*-eko lurak berreskuratzeko zuten eskubidea diskurtso nazionalista eta historikoetatik at kokatu zuen lehen lider sionistetako bat. Pentsamendu sozialistan oinarriturik, nahiago zuen juduek lurra lantzeko zuten eskubideaz eta langile klase judu nazional batez mintzatzea. 1929an Ben-Gurionek *Histadrut* sindikatuaren batzorde orokorraren aurrean eman zuen konferentzian langile klase judua klase nazional bihurtzeko beharraz mintzatu zen:

Le mouvement sioniste est né de l'impossibilité objective d'une existence normale, d'une vie saine en exil. Seuls un retour massif vers le travail et la possession d'un sol peuvent garantir la réalisation du sionisme. Le changement géographique et politique est conditionné par un changement socio-économique [...] La réalisation du sionisme rend nécessaire l'ascension au niveau national de la classe ouvrière³⁷.

Langile klasearen emantzipazio asmo hauek *Eretz Yisrael*-eko lurrian gauzatuko ziren. Ben-Gurionek asmo askatzaile eta sozialista guzti hauek lurraldeko populazio arabiarrekin kontraesanik izango ez zutela idatzi zuen 1915ean argitaratu zuen artikulu batean: “Pour nous, ne demandons pas la Palestine pour pouvoir y opprimer les Arabes, habitants de ce pays. Nous ne recherchons nul marché pour y écouler les produits des industries juives des pays de l'Exil”³⁸.

³⁶ SIMONS, *op. cit.*, 35. or.

³⁷ BEN-GOURION, David: “La relève de la garde” (1929) in CHARBIT, *op. cit.*, 443 eta 446. or.

³⁸ BEN-GOURION, David: “Le don du pays” (1915) in CHARBIT, *op. cit.*, 181. or.

Publikoki asmo adiskidetsuak eta baketsuak erakutsi arren, Ben-Gurionek gidatutako sionismo laborista izan zen arabiarrentzako kanporaketa plan sutsuenak egin zituen korronea. Ilan Pappé historialari israeldarrak *Nakba*-ren inguruan ikerketa sakonak egin ondoren, Ben-Gurion jo zuen arabiarren kanporaketa honen “arkitekto” nagusitzat. Izan ere, *Nakba* planifikatzeko indar armatu juduen bilera nagusiak honen etxe bertan egin ziren³⁹. Are gehiago, Ben-Gurionek Israelgo independentzia aldarrikatu aurreko urteetan jada defentsa ministro gisa lan egin zuen, honen agindupean, *Haganah*⁴⁰ talde paramilitarrak 1940. urtetik aurrera Palestinako herri eta herrixka arabiar guztien txostenak egiteari ekin zion: zenbat biztanle bizi ziren, herri bakoitzaren aire argazkiak, bertakoen ogibidea, eraikin publikoen informazioa eta bertako biztanleen aberastasunaren eta armen jabetzaren inguruko ebaluazioa⁴¹. Dokumentu hauek informazio soila biltzea baino, etorkizuneko arabiarren kanporaketa planifikatzea zuten helburu, eta Ben-Gurion asmo hauen buruan izan zen.

Ben-Gurionek arabiarrekiko izan zuen jarrera datu bitxi, baina esanguratsu, batek argi uzten du. Lider laboristak bere bizitza guztian zehar erakutsi zuen hizkuntza ezberdinak ikasteko trebetasuna eta bederatzi hizkuntza ezberdin mintzatzea edo, behintzat, irakurtzera iritsi zen; yiddish ama hizkuntzaz gain, hebreera, turkiera, ingelesa, errusiera, frantsesa, alemana, gaztelania zein antzinako greziera. Baina bere bizitza guztian zehar ez zuen Palestinako biztanleen jatorrizko hizkuntza, arabiarra, ikasteko premiari izan, nahiz eta herrialde honetara 1906an, hogei urte zituelarik, iritsi zen⁴².

Arabiarrekiko jarrera Peel Komisio britaniarrak Palestinako banaketa plana proposatu ondoren are garbiago utzi zuen Ben-Gurionek. Britainiarrek Palestinako Mandatuan izandako arabiar matxinaden kausak ikertzera bidalitako Peel Komisioak bere txostena argitaratu zuen 1937an eta bertan Palestinako Mandatuaren zatitzea gomendatzen zuten. Horrela, juduek Mandatuko lurren %33a jasoko zuten. Gainera, bertatik arabiarrek kanporatzeko eskubide guztia aitortzen zien komisioak. 1938ko ekainaren 9an Agentzia Juduaren⁴³ zuzendaritza, Ben-Gurion buru zela, bildu zen Peel Komisioaren zatiketa proposamena aztertzeko. Bertan, argi mintzatu zen lider laborista arabiarren kanporaketa behartuaz, ez baitzuen ekintza immoral gisa ulertzen⁴⁴. Are gehiago, hasieratik jo zuen beharrezkotzat arabiarren kanporaketa aurrera eramateko indarraren erabilera, eta horrela adierazi zion Agentzia Juduaren zuzendaritzari: “El Estado debe imponer el orden y la seguridad y no lo hará moralizando ni predicando «sermones de la montaña», sino con ametralladoras que nosotros necesitamos”⁴⁵.

Ben-Gurion prest zen Peel Komisioak eskainitako lur eremua onartu eta momentuz *Eretz Yisrael* proiektu zabalagoari uko egiteko. Garrantzitsuena Ben-

³⁹ PAPPÉ, *op. cit.*, 24. or.

⁴⁰ 1920an sortutako antolakunde paramilitar judua izan zen *Haganah*, Mandatu Palestinarrean aritu zen antolakunde paramilitar judu handiena. Gerora beste talde paramilitar judu txikiagoekin batera Israelgo armada ofiziala osatuko zuen.

⁴¹ PAPPÉ, Ilan: *Los palestinos olvidados: Historia de los palestinos de Israel*, Akal, Madril, 2017 [2011], 27. or.

⁴² TEVETH, Shabtai: *Ben-Gurion and the Palestinian Arabs: From Peace to War*, Oxford University Press, New York, 1985, 118. or.

⁴³ Agentzia Judua 1923an sortu zen Palestinako biztanleria juduaren ordezkari gisa aritzeko helburuarekin, Israelgo Estatuaren etorkizuneko gobernuaren aitzindari izan zela esan daiteke.

⁴⁴ MASALHA, *op. cit.*, 143. or.

⁴⁵ *Id.*, 132. or.

Gurionentzat, ez zen Estatu juduaren hedapena, honen gaineko subiranotasun guztia eta arabiar populazioarekiko kanporatze eskubide guztia eskuratzea baizik. Izan ere, Peel Komisioak proposatutako Estatu juduaren lurren barnean arabiarrek populazioaren ia erdia osatzen baitzuten oraindik⁴⁶ eta Ben-Gurionek ondo zekien juduen immigrazio handi bat gertatzen bazen ere, hauek ezingo zietela eutsi arabiarren jaiotza-tasari. Horrela, Estatu juduaren egonkortasuna eta identitatea bera laster ikusiko ziren mehatxaturik.

Horregatik, lehen helburua gehiengo judu garbia izango zuen estatua lortzea zen, mugen aferak bigarren mailako arazo bat suposatzen zuen. 1937an Ben-Gurionek bere seme Amos Ben-Gurioni eskutitz argigarri bat idatzi zion. Bertan, Peel Komisioak proposatutako lurraldea “hasiera besterik ez” zela adierazten zuen, eta argi arrazoitzen zuen zergatik behar zuten estatu burujabe bat beranduago *Eretz Yisrael*-eko gainerako lurren jabe egiteko:

The Jewish state would have outstanding army –I have not doubt that our army will be among the world’s outstanding– and so I am certain that we won’t be constrained from settling in the rest of the country, either by mutual agreement and understanding with our Arab neighbours, or by some other way [...] I still believe that after we become numerous and strong, the Arabs will understand that is best for them to strike an alliance with us, and to benefit from our help, providing they allow us by their good will to settle in all parts of Palestine⁴⁷.

Peel Komisioak baimendutako arabiar populazioaren kanporaketari ematen zion garrantzia berretsi zuen Ben-Gurionek bere eguneroko pribatuko sarrera batean. Izan ere, arabiar populazio ugari bat mantentzen bazen etorkizuneko estatuan, honek gutxiengo gisa eskubideak irabaziko zituen eta orduan zailagoa izango zen iritzi publikoaren aurrean hauen kanporatzea justifikatzea. Horregatik, hau lehenbailehen egiteko zeregina zen lider laboristaren ustetan:

The transfer paragraph is in my eyes more important than all our demands for additional land [...] If we are not able to remove the Arabs from our midst now and transfer them to the Arab area as the British Royal commission has suggested to England, then we will not be able to do it easily (if at all) after the establishment of the State⁴⁸.

Azkenik, 1938ko azaroan, gobernu britaniarrak argitu zuen uko egiten ziola Peel Komisioak proposatutako zatiketa plana ezartzeari. Baina, hamar urte geroago, NBEk bere zatiketa plana proposatu zuenean, oraindik ez zen inolako konponbiderik bilatu arabiar populazioarentzat. Izan ere, 1947ko azaroaren 27an NBEk Palestina bi estatutan zatitzea erabaki zuen, Jerusalem eta Belen hiri neutral gisa mantenduko zirelarik. Baina, ebazpenak juduentzako estatu gisa finkatutako mugen barnean, arabiarrek oraindik ere populazioaren %42a osatzen zuten. Horregatik, ebazpena atera eta egun gutxira, Ben-Gurion berriz zuzendu zen *Mapai* alderdiko kide nagusiengana arabiarren kanporatze masibo bat beharrezkoa izango zela ohartarazteko:

⁴⁶ MASALHA, *op. cit.*, 90. or.

⁴⁷ TEVETH, *op. cit.*, 188. or.

⁴⁸ SIMONS, *op. cit.*, 29. or.

Hay un 40 por 100 de no judíos en las áreas asignadas al Estado judío. Esta composición no es una base sólida para un Estado judío. Y tenemos que hacer frente a esta nueva realidad en toda su severidad y peculiaridad. Un equilibrio demográfico semejante cuestiona nuestra capacidad para mantener la soberanía judía. Únicamente un Estado con al menos un 80 por 100 de población judía puede ser viable y estable⁴⁹.

Ben-Gurionek ez zuen Hego Afrikako eredia errepikatu nahi, hau da, egoera bat non juduak lur-jabe eta gobernari izango ziren eta arabiarrek eskulan merkea. Horregatik, 1934an, Ben-Gurion Musa Alami lider palestinarrekin bildu zenean, honi arabiarrei inguruko herrialdeetan enplegua bilatzeko aukeraz mintzatu zitzaion⁵⁰. Helburua, Hego Afrikako eredu koloniala saihestea zen.

Izan ere, Ben-Gurionen eta pentsamendu laboristaren oinarritzko pentsamoldea “lan-indar hebrear” eta “lur hebrear” postulatu ideologikoetan oinarritzen zen. Bi ildo hauek honakoa esaldian laburtu zituen Ben-Gurionek *Va’ad Leumi*-ko, *yishuv* judutarren kontseilu nazionala, zuzendaritzaren aurrean 1936an izandako bilera batean: “Si deseamos una redención hebrea al 100%, entonces debemos tener un asentamiento hebreo al 100%, una agricultura hebrea al 100% y un puerto hebreo al 100%”⁵¹.

Horrela, laneku hebrearrari lehentasuna emateko politika hau *Histadrut* sindikatuaren ekintzetan ere islatu zen, zeinak ez zituen langile arabiarrek onartu 1959ra arte. Gainera, 1929tik aurrera, sindikatuak jabetza judutarreko industrian lanean zebiltzan langile arabiarrek kanporatzeko kanpaina bat abiarazi zuen. Laneku arabiarra erabiltzen zuten enpresen aurrean piketeak egitea izan zen ekintza nagusienetako bat. Ben-Gurion “hebrear langileen burdinazko harresia” kontzeptua erabiltzen ere hasi zen, ideia hau Zeev Jabotinsky-k, gero ikusiko dugun lider errebisionistak, erabili zuen terminoaren oso antzekoa zen. Ideia honen bidez, Ben-Gurionek adierazi nahi zuen juduentzako soilik izango ziren lurak eta enpleguak sortu behar zirela, eta hauek defendatu noski⁵². *Mapai* alderdiko lider laborista garrantzitsua izan zen David Hacoen (Gomel, Bielorrusia, 1898 – Haifa, Israel, 1984) honela mintzo zen “lan-indar hebrear” ideiarekin inguruan:

Recuerdo haber sido uno de los primeros de nuestros camaradas en ir a Londres después de la Primera Guerra Mundial... Allí me hice socialista... En Palestina tuve que pelear con mis amigos sobre la cuestión del socialismo judío, defender el hecho de que no aceptaría árabes en mi sindicato, la Histadrut; defender de los sermones de las amas de casa para que no compraran en los comercios árabes; impedir que los trabajadores árabes consiguieran empleo allí... Verter queroseno sobre los tomates árabes; atacar a las amas de casa judías en los mercados y romperles los huevos árabes que habían comprado; elogiar hasta el cielo al Kereen Kaymet [Fondo Nacional Judío] que envió a Hankin a Beirut a comprar tierra de propietarios ausentes y expulsar a los

⁴⁹ PAPPÉ, *op. cit.*, 79. or.

⁵⁰ TEVETH, *op. cit.*, 140. or.

⁵¹ MASALHA, *op. cit.*, 46. or.

⁵² TEVETH, *op. cit.*, 79. or.

campesinos de la tierra; comprar miles de dunams⁵³ de un árabe está permitido, pero vender, Dios lo permita, un dunam judío a un árabe, está prohibido⁵⁴.

Beraz, laburtuz, esan dezakegu sionismoaren adar laboristak langile klasearen emantzipazioaz eta asmo askatzaileez hitz egiten bazuen ere, errealitatean langile klase juduaren emantzipazioa soilik bilatzen zuela: juduentzako soilik ziren sindikatuak, alderdi politikoak edota *kibbutz*-ak. Hau da, langile klase juduaren nagusitasuna aldarrikatzen zuten garbiki eta helburu hau lortzeko bidean langile, artisau edota nekazari arabiarrek arazo bat baziren herrialdetik kanporatuak edo lekualdatuak izan behar ziren. Gainera, gogoan izan, Israelgo Estatuaren sortzaile eta ideologo nagusiak laboristak izan zirela, beraiek diseinatu zuten estatua.

II.3. Zeev Jabotinsky eta sionismo errebisionista

Zeev (Vladimir) Jabotinsky (Odesa, Ukraina, 1880 – New York, 1940) lehen aldiz mugimendu sionista barnetik zatitu zuen mugimenduaren sortzailea izan zen: sionismo errebisionista. Ikuskera sionista honen oinarri ideologikoak 1924an ezarri zituen Jabotinsky-k: etorkizuneko Estatu juduak hartu beharreko lurren inguruan ez zegoen inolako negoziazio posiblerik, honek *Eretz Yisrael* guztia, hau da, Palestinako Britainiar Mandatuko eta Transjordaniako emirerriko lurak hartu behar zituen⁵⁵. Helburu hau lortzeko, sionismo errebisionistak negoziazioen zein borroka armatuaren bideak proposatu zituen, *Eretz Yisrael* judu bat negozia ezinezko helburua baitzen.

Garai haietan mugimendu sionistan gehiengo bat osatzen zuen adar sozialista askoz ere malguagoa zen etorkizuneko lurralde hedapena negoziatzerako orduan, nahiz eta ikusiko dugunez, sionismoaren bi adar hauek arabiarrekiko ikuspuntu oso antzekoa izan. Baina, lurraldearekiko eta negoziazio prozesuarekiko desadostasun hauek bultzatuta, 1935ean Jabotinsky-k Erakunde Sionista Berria sortu zuen Munduko Erakunde Sionista ofizialaren ildo politikoari aurre egiteko.

Jabotinsky-k arabiarrekiko ikuskera erabat arrazista eta kolonialista zuen, baina, aldi berean, oso gutxitan mintzatu zen arabiarren kanporaketaren alde. Ikusiko dugunez, bere ideia Palestinako eta Transjordaniako lurretan bertako biztanleekin negoziatu gabe eta bortxa erabiliz proiektu kolonizatzaile bat ezartzea zen. Arabiarrek, kolonizatzaileek ezarritako baldintzak onartuz gero lurraldean geratzea izango zuten, bestela alde egin beharko zuten. Enpresa kolonizatzaile hau armen indarren bidez inposatuko zen, Jabotinsky-k “burdinazko harresia” izendatuko zuen proiektuari jarraiki.

Jabotinsky-ren ideia, lurraren hedapena alde batera utziz, gainerako korrante sionisten oso antzekoa zen: juduak gehiengo garbi bat osatuko zuten estatu bat lortzea⁵⁶. Gainera, lurralde honen “desjabetzea” justizia ekintzatzat jotzen zuen sionismo errebisionistaren sortzaileak eta populazio lokalak kontra egiten bazuen honakoa proposatzen zuen:

⁵³ Jatorri turkiarreko azalera adierazteko unitatea da dunam-a, 1.000 metro karratuko azaleraren baliokidea litzateke.

⁵⁴ MASALHA, *op. cit.*, 48. or.

⁵⁵ Palestinak eta Transjordaniak mandatu bakar bat osatu zuten, Palestinako Mandatua izenekoa, 1922an britainiarrek lurraldea zatitu eta Transjordania emirerri autonomo bilakatzea erabaki zuten arte. Errebisionistek 1922 baino lehenagoko mugak nahi zituzten Israelgo Estatuarentzat.

⁵⁶ JABOTINSKY, Zeev: “La muraille de fer (Les Arabes et nous)” (1933) in CHARBIT, *op. cit.*, 538. or.

Ce genre de morale est bon pour les cannibales, pas pour les peuples civilisés. Le monde n'appartient pas exclusivement à un tel qui possède un territoire trop grand pour ses besoins, mais également à ceux qui ne possèdent rien. L'expropriation du territoire d'un peuple qui possède de grands domaines, pour y établir un foyer en faveur d'un peuple errant, est un acte de simple justice. Si le propriétaire s'y oppose (ce qui est parfaitement naturel), il faut l'obliger à accepter⁵⁷.

Honakoa, ikusi dugunez, sionismoan errotutako pentsamendu sakona da. Sionistek ez zuten inolako baimenik eskatu beharrik lur zabal ugari zituen populazio bati lurrik kentzeko. Gainera, Jabotinsky-k, lehenago Herzl-ek egin bezala, sionismoari Europa zibilizatuaren baloreak Ekialde Hurbilean inposatzeko helburua ere ezarri zion. Horretarako, helburu garbi bat zuen enpresa sionistak, "Ekialdearen" erabateko likidazioa:

Le Juif civilisé émigre vers l'Asie tout comme l'Anglais civilisé vers l'Australie. Il emporte cette Europe en Palestine, avec lui et en lui ; et il continuera à développer la tradition européenne qui lui est proche et qu'il porte dans son sang depuis deux millénaires. Et ce que nous souhaitons à nos voisins, c'est la même chose: la liquidation rapide de l'Orient⁵⁸.

Baina, Jabotinsky-k arabiarrekiko jarrera bortitz hau bazuen ere, kanporaketaren alde ez zen garbiki mintzo. 1937an Peel Komisio britaniarra Palestina zatitzearen eta arabiarrek lur juduetatik kanporatzearen alde mintzatu zenean, honela baloratu zuen Jabotinsky-k proposamena hitzaldi publiko batean:

I have also shown to you the idea is that Palestine on both sides of the Jordan should hold the Arabs, their progeny, and many millions of Jews. What I do not deny is that in the process the Arabs of Palestine will necessarily become a minority in the country of Palestine⁵⁹.

Jabotinsky-k ez zuen pentsatzen beharrezkoa zenik arabiarrek kanporatzea, bere asmoa erregimen kolonial judu bat ezartzea baitzen eta arabiarrek honen baldintzetara moldatu beharko ziren halabeharrez. Horregatik, plazaratu zuen "burdinazko harresiaren" ideia. Asmo hau honakoan labur daiteke: sionisten ekinbide eta asmo guztiak arabiar populazioaren gehiengoaren iritziaren aurka eramango ziren eta horretarako ekintza armatuak eta bortxazkoak beharrezkoak izango ziren, honela populazio judua babestuko zuen "burdinazko harresi" judu bat sortuz. Honela laburtzen zuen ideia Jabotinsky-k berak:

La colonización sionista, aun la más restringida, debe terminarse o llevarse a cabo desafiando la voluntad de la población nativa. Por lo tanto, esta colonización sólo puede continuar y desarrollarse bajo la protección de una fuerza independiente de la población local, un muro de hierro que la población nativa no pueda atravesar. Esta es, en suma, nuestra política hacia los árabes. Formularla de otra manera sería hipocresía⁶⁰.

⁵⁷ JABOTINSKY, Zeev: "La morale de la «muraille de fer»" (1933) in CHARBIT, *op. cit.*, 545. or.

⁵⁸ JABOTINSKY, Zeev: "L'Orient" (1926) in CHARBIT, *op. cit.*, 379. or.

⁵⁹ SIMONS, *op. cit.*, 70. or.

⁶⁰ MASALHA, *op. cit.*, 52. or.

Nolabait, sionismo errebisionistaren sortzaileak proposatzen zuena Hego Afrikako *apartheid* erregimenaren antz handia edukiko zuen erregimen armatu bat litzateke. Non populazio lokalak, bertan bizitzen segi ahal izateko, kolonizatzaileek ezarritako baldintza zehatzak onartu beharko lituzkeen, hauek erabat baztertzailak baziren ere. Horregatik ez zuen beharrezkoa ikusten Jabotinsky-k arabiarren kanporatze planak egitea, hauek bere kabuz joango baitziren gehiengo juduaren esanetara makurtzea onartzen ez bazuten. Ideia hau adierazi zuen Jabotinsky-ren biografia idatzi zuen Joseph Schechtman autore sionista errebisionistak:

The establishment of a Jewish majority in Palestine will have to be achieved against the wish of the country's present Arab majority; an "iron wall" of a Jewish armed force would have to protect the process of achieving a majority; after that goal was reached, the Arabs would have no choice but to adapt themselves to the new state of affairs; then and only then, a modus vivendi would be worked out, always on the basis of the premise that two peoples, Jews and Arabs, were going to live and work in that country⁶¹.

Jabotinsky argi mintzo zen indar armatuaren beharraz, sionismoa gainerako asmo kolonizatzaileen berdina zen eta mendebaldeak aurrera eramandako ekintza kolonizatzaile orok bezala indar armatu baten beharra zuen. Indar armaturik gabe ezinezkoa litzateke asmo kolonizatzailea aurrera eramatea⁶².

Idea honi jarraiki, laster sortu ziren 1930eko hamarkadan lehen talde judu armatuak, lehenik arabiar populazioari aurre egiteko, baina gerora britaniar tropen aurka ere egin zutenak. Jabotinsky-k sutuki babestu zituen *Irgun*-ek, sionismo errebisionistaren erakunde armatuak, egindako erasoak. Horien artean, jendez gainezka zeuden merkatu arabiarretan bonbak jartzea edota arabiar zibilen etxeei eraso egitea. Hala ere, beren ekintza famatuena 1946ko King David hotelaren aurkako bonba eraso izan zen, hotel hau Britaniar Mandatuaren Komandantzia Militararen egoitza zen eta 91 hildako utzi zituen bonba erasoak. Aipatzekoa da talde armatu hau, 1940. urteaz geroztik, Menahem Beginek (Brest-Litovsk, Bielorrusia, 1913 – Jerusalem, 1992) zuzendua izan zela, 1977an Israelgo lehen ministro izatera iritsiko zena.

Irgun ez zen izan Jabotinsky-ren ideiatan oinarritu zen talde armatu bakarra. *Lehi*, bere hebreerazko siglengatik ezaguna "Israelen Askapenaren Aldeko Borrokalariak", *Irgun* taldea utzi zuten militante armatuek osatu zuten 1940an. Talde hau Avraham Stern (Suwalk, Polonia 1907 – Tel Aviv, 1942) sionista errebisionistak sortu zuen, *Irgunek* Bigarren Mundu Gerra hastean britaniarren aurkako tregua bat ezartzea erabaki zuenean. Sternek arabiarrek "basamortuko piztia eta hiltzaile zikin" gisa definitzen zituen. Horregatik, beraiek *Eretz Yisrael* gisa hartzen zituzten lurretatik, ez soilik palestinarrak, transjordaniarrak, siriarrak eta libanoarrak ere kanporatu behar ziren⁶³.

Ikusi bezala, Jabotinsky eta bere jarraitzaileen ideia nagusia beren asmoak armen indarrez inposatzea bazen ere, errebisionisten burua ere mintzatu zen bere bizitzako azken urteetan arabiarren lekualdatzearen alde. Gainera, oso asmo makiavelikoak erakutsiz. Edward A. Norman Estatu Batuetako dirudun handiki judu bat zen, zeinak bere bizi guztia diruz lagundu zuen *yishuv* judua. 1934an plan osatu bat idatzi zuen

⁶¹ SIMONS, *op. cit.*, 72. or.

⁶² JABOTINSKY, Zeev: "Apprendre à tirer" (1933) in CHARBIT, *op. cit.*, 586. or.

⁶³ MASAHLA, *op. cit.*, 54. or.

Palestinako arabiarrek Irakeko lurretara lekualdatzeko eta hau lider sionista ezberdinei erakutsi zien 1937an. Urte bereko abenduan, Jabotinsky-rekin bildu zen eta honakoa idatzi zuen Normanek bien bilkuraz bere eguneroko pribatuan:

Él (Jabotinsky) ha leído ya una copia de mi memorando sobre Irak... Está muy a favor de la idea. Dijo, sin embargo, que será muy difícil inducir a los árabes a abandonar la tierra de Israel... Jabotinsky planteó una idea original según la cual, si el plan llega a un punto en el que Irak esté dispuesto a colaborar y formula una invitación para que los palestinos árabes emigren allí, la Organización Sionista Mundial sería inteligente si se declarara públicamente en contra de la emigración árabe, porque entonces los árabes estarán seguros de que el plan no es originalmente judío, y de que los judíos desean que ellos se queden en el país para explotarlos, por lo cual estarán muy ansiosos de ir a Irak⁶⁴.

II.4. Avraham Yitzhak Kook eta sionismo erlijioso

Sionismo erlijiosoak ez zuen mugimenduaren hasierako urteetan eragin politiko handirik izan. Izan ere, Israel Estatu judu bihurtzea bilatzen zuen mugimendu nazionalista jaioberriarekin oso kritikoa izan ziren errabino gehienak. Beraz, urte luzez sionismoa ideologia eta mugimendu politiko sekularra izan zen. Sionismo erlijiosoaren hastapeneko pentsalari nagusia Avraham Yitzhak Kook (Daugavpils, Letonia, 1865 – Jerusalem, 1935) izan zen, judu askenazien errabino burua. Kook-entzat naziotasun judua, *Eretz Yisrael* guztia lortzeko helburua, eta erlijioa banandu ezinezko bi alderdi ziren:

Il en résulte la volonté de dissocier la cause nationale de la cause religieuse, et la tendance à partager la nation en deux camps. Ce faisant, les deux causes ainsi séparées ne seraient que mystification, car la pensée, la sensibilité, l'idéalisme propres à la nation d'Israël constituent une unité indivisible, et c'est tout cet ensemble qui lui donne cette forme singulière. Les mêmes, qui font l'erreur de chercher à distinguer entre ces parties inséparables, aggravent leur cas en feignant de croire que la division est possible, et que la partie peut l'emporter sur le tout⁶⁵.

Beraz, ordura arteko sionismoaren korronteekin haustura bat suposatu zuen Kook-en ikuspegiak. Errabinoarentzat juduen erbesteak bekatua irudikatzen zuen eta herri juduaren guztizko erredentzioa soilik judu guztiak *Eretz Yisrael*-era lekualdatu ondoren baino ez zen lortuko: “La bonté divine en Israël et dans le monde se manifesterá par la restauration intégrale de la nation sur sa terre”⁶⁶.

Kook-ek 1924an *Merkaz Harav*, ordura arteko Israelgo *yeshiva*⁶⁷ nagusia, sortu zuen. Honetaz gain, sionismo erlijiosoaren ildo politiko nagusiak finkatu zituen, *Eretz Yisrael* guztiko lurra juduentzat hartzea. Agian ez zuen 1948 aurreko arabiarren kanporaketan eragin handirik izan, baina etorkizuneko muturreko mugimendu erlijioso ugariaren ideiak finkatu zituen. Bere seme Zvi Yehuda Kook (Žeimelis, Lituania, 1891 –

⁶⁴ MASALHA, *op. cit.*, 177. or.

⁶⁵ KOOK, Avraham Yitzhak: “Les lumières de la renaissance” (1920) in CHARBIT, *op. cit.*, 479. or.

⁶⁶ *Id.*, 481. or.

⁶⁷ *Yeshiva*-k Tora eta Talmud-aren ikasketak gauzatzeko hezkuntza zentro erlijioso juduak dira.

Jerusalem, 1982) aitaren ideien garapenaz arduratu zen eta Estatu sortu ondorengo lehen hamarkadan jarraitzaileak irabazten hasi zen. Juduek Palestinako lur guztia kolonizatzen ez bazuten ez zen inolako erredentzio judurik emango. Arabiarren esku zeuden lur denak kolonizatzea helburu erlijioso goren bat zen.

1956an *Mafdal* –Fronte Nazional Erlijioso– alderdi erlijioso sortu zen, sionismo erlijiosoaren erreferentzia nagusia bihurtuko zena. Israelgo armadak 1967an Zisjordania, Golango gainak, Sinaiko penintsula, Gaza eta Ekialdeko Jerusalem okupatu zituenean, sionista erlijiosoek herri juduaren erredentzioaren hasieraren seinaleztat ikusi zuten, lur hauek ezin zitzaizkien arabiarrei bueltatu inolako bake akordioaren truke. Kook-en jarraitzaile erradikalenak Hebron hiria okupatzen hasi ziren eta Kiryat Arba inguruan hiri bat eraikitzen hasi ziren, biak arabiarren Zisjordaniako lurretan eta nazioarteko legedi guztiari uko eginez. Korronte hau 1973ko urriko gudaren ondoren areagotu egin zen, eta sionista erlijiosoak eskuin sekularrarekin akordioak erdiesten hasi ziren arabiarrekin edozein bake akordio galarazteko. Bakea soilik *Eretz Yisrael* oso eta judu bat lortzean ezarriko zen. Eleazar Waldman (Petaj Tikva, Israel, 1937) Israelgo Parlamentuko diputatu izandako errabinoak argi utzi zuen: Israel gaizkiaren kontrako guda baten zegoen murgildurik eta mundu guztiko bakea guda honen emaitzak baldintzatuko zuen⁶⁸.

Nahiz eta Kook-ek ez izan erantzukizun zuzena, mugimendu erlijioso erradikalizatuz joan zen eta arabiarren guztizko kanporaketa eskatzen zuten muturreko alderdi erlijioso juduak ugarituz joan ziren. Meir Kahane (New York, 1932 – New York, 1990) errabino estatubatuarra 1971n *Kach* muturreko alderdi erlijioso sortu zuen. Alderdia 1994an legez kanpoko izendatu zuen Israelgo Estatuak, bere afiliatu batek Hebroneko mezkita batean tiroka 29 arabiar hil ondoren. Kahanek ideia garbiak zituen arabiarren inguruan: “No hay varios mensajes en el judaísmo, solo hay uno, Dios quería que viviésemos en un país de nuestra propiedad, aislado, para que tengamos el mínimo contacto posible con aquello que sea extranjero”⁶⁹.

Horrela, Kook-en ideietan oinarritutako muturreko erlijiosoek lider juduen aurka egitera ere ausartu ziren. 1995eko azaroak 4an, *yeshiva* judu bateko ikasle ohi batek Isaac Rabin lehen ministroa hil zuen Osloko bake akordioaren alde Tel Aviven eginiko mitin baten ostean. Yigal Amir hiltzailearen aburuz, lehen ministroa juduen bizitza arriskuan jartzen ari zen Osloko akordio bakeak sinatuz arabiarrekin.

Laburtuz, sionismo erlijioso guztiak ez du biolentzia sostengatu. Baina, Kook-ek ezarritako doktrinak, sionismo erlijiosoaren zati handi batek muturreko joera hartzea ekarri zuen. Estatuaren sorkuntza aurretik eragin politiko gutxi izan bazuten ere, erlijiosoen jarrera erabakigarria izan zen Estatu sortu ondorengo gertaera politiko nagusietan. Egun, Zisjordaniako kolono judutar askok Kook-en ideietan sinesten jarraitzen dute eta Israelek lur hauek bueltatzeko oztopoetako bat dira.

3. ONDORIOAK

Gradu amaierako lan hau Israelgo Estatu sortu aurretiko lider sionista nagusien pentsaera eta arabiarren kanporaketari buruz zuten jarrera ulertzen zentratu da. Korronte ideologiko nagusien azterketa egin ondoren, argi esan dezakegu arabiarren kanporaketa

⁶⁸ ARMSTRONG, Karen: *Historia de la Biblia*, Debate, Bartzelona, 2015, 211. or.

⁶⁹ *Id.*, 212. or.

ez zela kasualitate hutsa, gerraren ondorio edota arabiarren erasoen ondorio izan. Aitzitik, sionismoaren hastapenetatik oso sustraitua zegoen pentsamendu bat zen. Adibiderik garbiena Herzl-en beraren hitzak dira, sionismo politikoaren sortzaileak estatua non kokatuko zen oraindik ziurtasunez ez zekienean ere, jada bertako populazio lokala kanporatzeaz mintzo baitzen.

Hau ulertu gabe ezinezkoa da egungo egoera ulertzea. Izan ere, sionismoa mugimendu nazionalista judu bat da, bere helburua hasieratik izan da juduek gehiago garbi bat osatuko zuten estatu bat eskuratzea. Helburu hau lortzeko, ordea, jada aurretik populaturik zegoen lurralde bat aukeratu zuten, Palestina. Gainera, sionista gehien-gehienek helburua ez zen estatu binazional bat lortzea, alderantziz, urteetako jazarpenaz libratzeko erakunde politiko zein kultural juduek aginduko zuten estatu bat zuten jomuga. Helburu hau erdietsi nahi bazen, arabiarrek kanporatuak edo lekualdatuak izan behar ziren. Ben-Gurionek ondo aurreikusi zuen bezala, ezinezkoa litzatekeelako gehiago politiko judu bat mantentzea Israelgo erakunde politikoetan arabiar populazioak estatuaren %40a gaitzen bazuen. Sionismoaren asmo honek, egun oraindik indarrean dagoen gatazka sorraraztea ekarri zuen, populazio batek ez baitu bere bizitokia borondate hutsez uzten.

Sionismoak erdietsi zuen bere hastapenetatik amesten zuen helburua, Israelen independentzia adierazpenaren ondoren eta *Nakba*-n zehar 750.000 arabiar kanporatu ostean, Israelen bazen gehiago judutarreko estatu bat. Zehazki, arabiar eta juduen arteko lehen gerra amaitzean 1949an, 140.000 – 150.000 ez-judu inguru baino ez ziren geratzen Israelgo Estatuaren lurretan, hau da, populazioaren %17 inguru. Hauetatik asko kristauak eta drusoak ziren. Gainera, gerra garaiko konkistaren bidez Israelgo Estatuaren mugak garbiki zabaldu ziren, NBEk ezarritako Palestinar Mandatuko lurren %55etik, lur guztien %77 izatera igaro zen Israel. Beraz, lider sionistek jada bazuten juduak gehiago garbi bat izango ziren desiratutako estatua.

Urteetako kanporatze planek eta bilkura sekretuek beren fruitua eman zuten. Izan ere, lider sionistek, palestinarrek ez bezala, ondo jakin zuten moldatzen garaian garaiko indar korrelazio eta giro politikora euren helburuak erdiesteko. Hau da, iritzi publikoari begira zer esan ondo neurtzen eta idatzi zein bilkura pribatuetarako gordetzen zituzten benetako planak. Gainera, korrante sionista ezberdinek taktika ezberdinak bazituzten ere, denek zuten helburu gehiago judutar garbiko estatu bat. Laborista edo sozialistek, hau lortzeko garbiki proposatzen zuten arabiar populazioaren kanporaketa bat, errebisionistak zapalkuntza kolonial erregimen baten aldekoak ziren bitartean, baina azken finean arabiarren kanporaketa ere ez zuten ukatzen.

Lurraren zabalerari dagokionez, sionista erlijiosoek garbiki aldarrikatzen zuten *Eretz Yisrael* guztia, baina hauek ez zuten XX. mendearen lehen erdian pisu politiko handiegirik mugimendu sionistaren barnean. Errebisionistek, baita ere, negozio ezinezko baldintza bezala ezartzen zuten *Eretz Yisrael* guztian zehar hedatzea estatua, hau, britainiarrek 1922an banandu baino lehen, Palestina eta Transjordaniako batzen zituen Palestinako Mandatuaren lur guztiak bezala ulertuta. Laboristek pragmatismo handiagoa erakusten zuten mugen inguruan, baina haien artean ere gehiago judu garbiko estatu bat helburu ukazina zen. Izan ere, lurralde zati murriztago bat onartzeko prest zeuden, baina Ben-Gurionek adierazi bezala, honetan indar armatu indartsu bat antolatuta ahal izateko eta ondoren *Eretz Yisrael*-eko gainerako lurak indar posizio batetik negoziatu edo konkistatu ahal izateko. Hau garbi ikusi zen 1967ko gerraren ondorioz Israelek konkistatu zituen lur berrietan eta egun oraindik Zisjordanian aurrera daraman kolonizazio politikan, nazioarteko komunitateak onartzen ez dizkion mugak izanik gainera.

Honek arazo berri bat ekarri zion sionismoari. Izan ere, 1948an lortu zuten gehiengo judua 1967az geroztik konkistatutako lur berrietako arabiarrei eskubide zibil eta politikoak onartuz gero berriz ere mehatxaturik ikusiko zen. Arazo honetaz oso kontziente dira egungo lider sionistak. Yasir Arafat, Palestinako Aginte Nazionalako lider historikoa ere garbi mintzo zen mehatxu honetaz euren alde: “Israel puede tener la bomba atómica pero nosotros tenemos el seno de las mujeres palestinas, que nos concede una bomba no menos poderosa, la demográfica”⁷⁰. Israelek ezingo luke jasan lurralde okupatueta eta jada bere mugen barnean dauden arabiarren jaiotza tasa, hau juduena baino askoz ere handiagoa baita. Honek bi ondorio ekarri ditu, sionistek Diasporako juduek Israelera emigratzeko kanpainak areagotzea. Baina, bestetik, 1967az geroztik arabiarren kanporatze eztabaidak publiko egitea, egun arabiarren kanporatzea eztabaida politiko publikoetan gertatzen da. Jada ohikoa da *Likud*-eko politikari batzuk arabiarren kanporatze beharrez publikoki hitz egiten ikustea. Baina, lan honetan frogatzen saiatu garen bezala, hau ez da 1967 ondoren azaleratzen den afera edo ideia, sionismoaren hasieratik bertan zegoen ideia baizik. Kontua da, estatua sortu aurretik ideia hauek gehienbat pribatuan eztabaidatzen zirela eta lider sionista nagusien eguneroko edota artxibo pribatuak publiko egin arte ezin izan ditugula jakin hauen benetako asmoak.

Israelgo Estatuak bere jaiotzatik bertatik eraiki du gehiengo judua mantentzeko pentsatutako aparatu estatal bat. Adibide garbiena, herritartasuna ezartzeko eran aurkitzen dugu. Israelen “herritartasuna” (*ezrahut* hebreeraz, zentzu politikoa daukana) eta “nazionalitatea” (*le'om*, zentzu etnikoa daukana) bereizten dira. Ez da israeldar nazionalitatea existitzen, bakarrik israeldar herritartasuna. Juduek eta arabiarrek bi nazionalitate diferente osatzen dituzte. “Berezitasun” honen aurrekaririk garbiena Sobiet Batasunean, eta bloke sozialista guztian orokorrean, aurkitzen dugu. Bertan, nortasun agiriaren arabera, pertsona bat “sobietarra” (herritartasuna) eta “judua” (nazionalitatea) izan zitekeen, juduak nazionalitatez jotzen baitzituzten 1928tik aurrera. Israelen egiten duten bereizketa hau nazionalismo “etniko”-tik eratorria bada ere, Stalinen garaitik aurrera Sobiet Batasunak ere onartu zuen. Teorian, juduek eta arabiarrek eskubide eta betebeharrak dituzte. Baina praktikan, Israelek hasieratik izaera judua mantentzeko lege diskriminatzaile ugari sortu ditu, Itzulera Legea adibidez. Lurralde okupatuetan bizi diren palestinarren egoera ez aipatzeagatik. Lege honi jarraiki, Ameriketako Estatu Batuetan bizi den judu batek erraztasun gehiago ditu Israelgo herritar bihurtzeko bere etxea utzi behar izan zuen arabiar errefuxiatu batek baino. Beraz, argiki esan dezakegu Israel estatu etnozentriko bat dela.

Egia da, estatu moderno guztiak saiatu direla beraien populazioaren izaera nazionala homogeen bihurtzen. Baina Israelek, Turkiak edota Letoniak ere egiten duten bezala, besteak beste, bere herritartasuna izaera etnikoan oinarritzen du. Egia da, baita ere, mendebaldeko estatuak oraingo ez dutela inoiz izan beren mugen barruan beraiek etorkin kontsideratzen duten %20 inguruko populazio musulmana, Israelek egun duen bezala. Hau horrela balitz, ikusi beharko litzateke zein politika jarriko liritekeen martxan. Ikusi besterik ez dago, azken urteetan Europan etorkin gehien jaso dituzten herrialdeetan eskuin muturreko indar politiko xenofobo eta islamofoboak indartu direla, Frantzia kasu, nahiz eta krisi ekonomikoaren arrazoiak ere garrantzi berezia izan duen arlo honetan.

⁷⁰ CIERCO, Juan: “«Bomba demográfica» Palestina contra el Gran Israel” in *ABC*, 2003ko abenduak 18, eskuragarri hemen: http://www.abc.es/hemeroteca/historico-18-12-2003/abc/Internacional/bomba-demografica-palestina-contra-el-gran-israel_227234.html#

Halaber, sionistek nagusitasun judutarreko estatu bat eraiki behar zela argudiatzen zuten, horrela juduek Erdi Arotik XX. mende erdialdera arte bizi izandako pertsekuzio sistematikoa saihesteko. Argudio hau ezin da baztertu, izan ere, gure lanean aztertu ditugun autore guztiak XIX. mende bukaeran edota XX. mendearen lehen erdian garatu zuten euren jardun politikoa, hau da, juduen aurkako pogromoen garai gorenean eta nazien genozidio programatuaren garaian. Hau horrela, sionismoa sortu zuten autoreek garbi zuten juduak gainerako populazioaren gainetik egon beharko zirela beraien estatu propioan. Horrela, historian zehar juduek pairatutako jazarpena etengo zen. Egun, ordea, mendebaldeko herrialdeetan bederen, objektiboki oso zaila da imajinatzea judeofobia berpiztuko dela eta Israelek aliatu politiko indartsuak ditu nazioartean, Estatu Batuak mendebaldeko blokean eta, bertako agintariak inoiz aitortu ez duten arren, egitez, Saudi Arabia bera arabiarren aldean. Baina, juduenganako jazarpen arriskua gutxitzeak ez du ekarri Israelgo politika baztertzailerak desagertuz joatea, hauek areagotu eta betikotu egin baitira, gatazka ezin amaituko egoera batean utziz.

Gainera, ez da ahaztu behar sionismoa juduen jazarpen garai batean sortu zela, baina inperialismoa puri-purian zen garai batean ere sortu zela gogoratu behar da. Horregatik, nabarmendu behar da mugimendu politiko honen oinarri ideologikoak ezarri zituzten autore gehienek ikuskera eurozentrista bat zutela. Honek, kanporaketa eta lekualdatze planak asko erraztu zituen, autore sionista gehienentzat Ekialde Hurbileko biztanleak arabiar “atzeratu” eta “basati” batzuk baino ez baitziren. Beraz, Ben-Gurionek adierazi zuen bezala, arabiarrek kanporatzeak ez zuen inolako jarrera immoralik suposatzen.

Mundua deskolonizazio prozesu batetik igaro zen XX. mende erdialdean. Israelen, ordea, enpresa kolonialak egun jarraitzen duela esan dezakegu. Ez neokolonialismo moduan, kolonialismo klasiko eran baizik, indarraren eta bazterketa zuzenaren erabileraz. Bestalde, egia da sionistek esan bezala, ez zela berariazko sentimendu nazional palestinar bat existitzen juduen immigrazioa eta politika sionistak hasi arte. Hau horrela da, segurki Palestinan bizi ziren arabiarrek gehienbat arabiar sentitzen ziren eta ez palestinar. Baina, kolonizazio garaian mendebaldeko kolonizatutako estatu gehienetako biztanleek gauza bera esan dezakegu, hauek ziurrenik kolonizatzaileek ezarritako zapalkuntza eta bazterketa baldintzak direla eta garatuko baitzuten gero deskolonizazio borrokara eramango zituen kontzientzia nazionala. Palestinako arabiarrekin antzeko zerbaite gertatu zela esan dezakegu.

Amaitzeko esan, betikotuta dirudien israeldarren eta palestinarren arteko gatazka hau bere osotasunean ulertu ahal izateko, arestian aipatutako arabiarren pentsamendu nazionalista eta honen estrategia zein sionismoak 1967az geroztik hartutako orientazioaz azterketa sakonagoa egin beharko litzatekeela. Baina, argi dago sionismoak bere hasieratik finkatu zituela gatazka honen sustraiak, hasieratik lurralde bateko populazio lokala kanporatzeko asmoa izan baitzuen.

BIBLIOGRAFIA

- ARMSTRONG, Karen: *Historia de la Biblia*, Debate, Bartzelona, 2015.
- BEN-GOURION, David: “Le don du pays” (1915) in CHARBIT, Denis (ed.) : *Sionismes. Textes fondamentaux*, Éditions Albin Michel, Paris, 1998, 180-183. or.
- _____ “La relève de la garde” (1929) in CHARBIT, *op. cit.*, 443-447 or.
- DE LANGE, Nicholas: *El judaísmo*, Akal, Madril, 2011.
- FINKELSTEIN, Israel eta SILBERMAN, Neil Asher: *La Biblia desenterrada*, Siglo XXI, Madril, 2003 [2001].
- GELLNER, Ernest: *Naciones y nacionalismo*, Alianza Editorial, Madril, 1988 [1983].
- HERZL, Theodor: “On ne nous laissera pas tranquilles” (1896) in CHARBIT, *op. cit.*, 46-51 or.
- _____ “Palestine ou Argentine?” (1896) in CHARBIT, *op. cit.*, 310. or.
- _____ “Terre ancienne, terre nouvelle” (1902) in CHARBIT, *op. cit.*, 144-155. or.
- HOBBSAWM, Eric J.: *Naciones y nacionalismo desde 1780*, Editorial Crítica, Bartzelona, 1992.
- JABOTINSKY, Zeev: “L’Orient” (1926) in CHARBIT, *op. cit.*, 373-379 or.
- _____ “La Muraille de fer (Les Arabes et nous)” (1933) in CHARBIT, *op. cit.*, 537-542 or.
- _____ “La morale de la ‘muraille de fer’” (1933) in CHARBIT, *op. cit.*, 543-545 or.
- KOOK, Avraham Yitzhak: “Les lumières de la renaissance” (1920) in CHARBIT, *op. cit.*, 477-498 . or.
- KRÄMER, Gudrun: *Historia de Palestina: Desde la conquista otomana hasta la fundación del Estado de Israel*, Siglo XXI, 2009 [2002].
- MASALHA, Nur: *La expulsión de los palestinos. El concepto de “transferencia” en el pensamiento político sionista, 1882-1948*, Bósforo Libros eta Editorial Canaán, Madril, 2008 [1992].
- PAPPÉ, Ilan: *La limpieza étnica de Palestina*, Crítica, Bartzelona, 2008 [2006].
- _____ *Los palestinos olvidados: Historia de los palestinos de Israel*, Akal, Madril, 2017 [2011].
- SAND, Shlomo: *La invención del pueblo judío*, Akal, Madril, 2011 [2008].
- _____ *La invención de la Tierra de Israel*, Akal, Madril, 2013[2012].
- SIMONS, Chaim: *A Historical Survey of Proposals to Transfer Arabs from Palestine 1895-1947*, Gengis Khan Publishers, Ulan Bator, 2004 [1998].
- TEVETH, Shabtai: *Ben-Gurion and the Palestinian Arabs: From Peace to War*, Oxford University Press, New York, 1985.

Prentsa

CIERCO, Juan: “«Bomba demográfica» Palestina contra el Gran Israel” in *ABC*, 2003ko abenduak 18.

MORENO ALMENDRAL, Raúl: “El debate académico sobre nación y nacionalismo desde los orígenes hasta la consolidación del predominio anglosajón” in *Arbor*, 2015eko martxoak 3a.

Kongresuak

Basileako Programa: Zionist Congress: First Zionist Congress & Basel Program, Jewish Virtual Library, 1897, eskuragarri hemen:
<http://www.jewishvirtuallibrary.org/first-zionist-congress-and-basel-program-1897>